

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

**ELEBITASUNA ESKOLAN: ZER LEKU DU  
AMA-HIZKUNTZAK?  
GRADU AMAIERAKO LANA**

**EGILEA:** Sastre Peña, Julen.

**ZUZENDARIA:** Reguero Ugarte, Urtzi.

**2018-2019 IKASTURTEA**

# ELEBITASUNA ESKOLAN: ZER LEKU DU AMA-HIZKUNTZAK?

Julen Sastre Peña

UPV/EHU

## **ABSTRACT**

Gratu Amaierako Lan honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoko D eredu-ko eskolen hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza prozesua aztertzea da, ikasleen ama hizkuntzari arreta jarritz. Honez gain, ikasle atzerritarrek hizkuntza ikasteko eskolek ematen dioten tratamendua ezagutuko da. Hau gauzatzeko, Haur Hezkuntza hastetik Lehen Hezkuntza bukatu arteko ibilbidea hartu da kontuan. Ikerketa aurrera eramateko, 15 ikastetxeek galdetegi bat bete dute eta hauen emaitzak aurretik zehaztutako hipotesiekin alderatu dira. Emaitzak aztertu ostean, arazo bat detektatu da eta lanari amaiera emateko arazo hori konpontzeko hobekuntza proposamen bat egin da.

*Hitz gakoak: ama hizkuntza, D eredu, elebidun, gaztelania, euskara, etorkin.*

El objetivo de este Trabajo de Fin de Grado es investigar el proceso de enseñanza-aprendizaje de las lenguas entre las escuelas de la Comunidad Autónoma Vasca, poniendo el énfasis en la lengua materna del alumno. Además de eso, se conoce el tratamiento que las escuelas dan a los alumnos inmigrantes para que aprendan los idiomas. Para ello, se va a tener en cuenta el camino que los alumnos hacen de Educación Infantil hasta terminar Educación Primaria. Para llevar a cabo la investigación, se ha realizado un formulario a 15 centros y los resultados que se han obtenido se han comparado con las hipótesis previamente realizadas. Tras investigar los resultados, se ha encontrado un problema al que se le va a dar una solución a través de una propuesta de mejora.

*Palabras clave: lengua materna, modelo D, bilingüe, castellano, euskara, inmigrante.*

The aim of this Undergraduate Final Project is to investigate the teaching-learning process of languages among the schools of the Autonomous Community of the Basque Country, emphasizing the student's mother tongue. Apart from this, it will be observed the treatment that schools provide to immigrant students for them to learn languages. To this aim, the path followed by students from pre-school education to the end of primary education will be taken into consideration. To carry out the investigation, 15 centres have completed a questionnaire and the results obtained have been compared to the hypotheses previously generated. After analyzing the results, a problem has been encountered, to which a solution will be provided through a proposal for improvements.

*Keywords: mother language, D model, bilingual, Basque, Spanish, immigrant.*

## AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA.....	4
2. MARKO TEORIKOA.....	6
3. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK.....	18
4. METODOA.....	19
5. EMAITZAK.....	22
6. ONDORIOAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK.....	37
7. ERREFERENTZIAK.....	44
8. ERANSKINAK.....	47

## **1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA**

Lan honen abiapuntua aurkitzeko, 20 urte atzerantz egin behar dugu. Bi urte nituen eta etxeko ama hizkuntza gaztelania izanik, nire gurasoek D ereduko eskola publiko batean eskolatu ninduten, euskarazko eredu batean hain zuzen ere. Nire gurasoen helburua nik euskara ikastea zen, izan ere, gaztelania etxean eta gizartean ikasiko bainuen.

Eskolatze honetan, nire adineko beste 50 ikaslerekin topo egin nuen. Kontzientzia izaten hasi nintzenean, gertaera batek nire atentzioa erakarri zuen eta betidanik eraman izan dut gaur egunera arte. Gertaera hori izan zen, gure eskolatzean era oso arraro batean hiru geletan banatu gintuztela; gela bat 25 ikasle ingurukoa zen eta beste biak 12-13 ikasletakoa bakarrik.

Lehen Hezkuntzako 2. mailara iritsi arte ez nintzen konturatu hiru gela ginela, soilik bi gela ginelako ustea nuen, izan ere, batzuetan bi gela elkartu eta batera lan egiten genuen, horrela 25 ikasle inguruko gela bat sortuz. 2. mailan geundela, irakurketa tailer bat egin genuen eta hirugarren gelako ikasleak ikusi nituen lehenengo aldia izan zen, lau urte geroago.

3. mailan gela aldaketak egin ziren eta denak nahastu egin gintuzten; lehenengo egunak arraroak gogoratzen ditut, askoren izenak ikasi behar nituen eta batzuen aurpegiak niretzako guztiz berriak ziren.

Urteak aurrera joan ahala, lagun gehiago egiten hasi nintzen eta haien gurasoak ezagutzen nituenean, nire aurreko lagunak gurasoek ez zuten gauza batez ohartu nintzen; haien seme-alabekin euskaraz hitz egiten zuten. Kontzientzia gehiago nuen eta urte batzuk atzerago egin ziguten banaketa hori ama hizkuntzaren arabera zela konturatu nintzen.

Parentesi txiki bat zabalduz, Idiazabalek eta Manterolak (2009) ikasleak eskolatzean ama hizkuntza bezala euskara duten ikasleak ama hizkuntza gaztelania duten ikasleekin nahastean euskara galtzearen ustea zabaldua dagoela adierazten dute. Horregatik, D eredu ezberdinak sortu dira, adibidez, talde berezituak egitea eta ama hizkuntza euskara duten ikasleak alde batetik eta ama hizkuntza gaztelania dutenak beste aldetik banatzea.

Hori izan zen guri eskolatzean erabilitako irizpidea gelak banatzerako orduan. Bereizketa honek, betidanik zeresana eragin du niregan eta bereizketa horren arrazoiak ez ditut ulertu duela gutxi arte. Beti pentsatu izan dut bereizketa hau ez zela oso egokia izan,

baina beti ezagutza ezatik abiatuz, nire esperientzia propioa kontuan hartuz. Izan ere, metodo hau erabilia beti pentsatu izan dut nik bi hizkuntzak ondo menperatzera iritsi naizen arren, nire adineko ikasle askok metodo honen bidez hori ez dutela lortu.

Bizitza osoan zehar honi arrazoiak aurkitzen saiatu naiz eta unibertsitatean nire aukera heldu zen. 2. mailan, Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak Lehen Hezkuntzan ikasgai hain hau tratatzen zen eta nire jakin-mina piztu eta motibatu egin ninduen. Ikasgai honi esker, hizkuntza programak ezagutu, gai honen inguruan asko irakurri nuen eta horren bidez asko jantzi nintzen. Horrez gain, gaur egungo egoera kulturantzuna ezagutu nuen, ikasle etorkinei hizkuntza ikas dezaten zer nolako tratamendua eman behar zaien ikasiz.

Graduko 3. mailatik 4. mailara bitartean, Gradu Amaierako Lanaren gaiko hautaketan, "hizkuntzaren trataera Lehen Hezkuntzan" gaia zegoela ikusi nuen eta ez nuen dudarik izan. Aukera paregabea zen nire burua formatzen jarraitzeko eta honen inguruan gehiago ikertzeko. Horregatik, txikitan bizi izandako gertaera oinarritzat harturik, Euskal Autonomia Erkidegoko 15 ikastetxeek ikasleen hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan egiten dieten tratamendua aztertu ahal izan dut.

Lan honen egitura hurrengo izango da; adituen ikerketak erabiliz, lanari marko teorikoak emango dio hasiera. Jarraian, lanaren helburuak eta hipotesiak partekatuko dira. Ondoren, erabilitako metodoa azalduko da eta hurrengo puntuan metodo horrek sortutako emaitzak aztertuko dira. Huetan oinarrituz, ondorioak eta hobekuntza proposamenak partekatuko dira. Bukatzeko, lana osotasunean ulertzeko erreferentziak eta eranskinak egongo dira eskuragarri.

## **2. MARKO TEORIKOA**

Gaur egun, Euskal Herriko eta Espainiako hezkuntza sistemetako ezaugarri nagusietako bat aniztasuna da. Eskoletan eta gela baten barnean, herrialde, hizkuntza eta kultura ezberdinetako haurrak aurki daitezke. Eskolaren eginkizuna, kasu honetan, aniztasun horri erantzuna ematea da.

Xavier Besalú eta Ignasi Vilak (2007) esaten duten gisara, eskoletan aniztasun linguistikoa egotea (kasu askotan 12, 13 edo hizkuntza gehiago) geroz eta ohikoagoa da. Gauzak honela, gela berean 4, 5 edo hizkuntza gehiagorekin egin dezakegu topo. Kasu hauetako askotan, ikaslea tokiko hizkuntza ofizialak ezagutu gabe etortzen dira.

Amelia Barquin-ek (2009) aipatzen duen moduan, irakasleak izateko ikasten ari diren ikasleak, ikasketak bukatu eta eskoletara iristen direnean, eskola ez dela ezagutu zuten berbera jabetzen dira, hainbat aldaketa gertatu direla hamarkada batean eta horietako bat etorkinen seme-alaben eskolatzea izan da. Eusko Jaurlaritzak (2018) INE-ko datuak kontuan hartuz adierazten duen moduan, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE laburduraz ezaguna) 1998-2018 bitartean, 180.000 atzerritar ezarri dira. 1998an atzerritarrak EAEko populazioaren %1,3 ziren eta gaur egun, 2018an %9,4. Beraz, azken urteotan, kopuru hori nabarmen igo da.

Besalú-ren (2002) hitzetan, immigrazioa errealitate ukaezina da eta gaur egungo giza fenomeno berritzaile eta nabariena bezala definitzen du. Bere hitzei jarraipena emanez, Espainia, Europar Batasunaren barnean, atzerritarren helmuga bilakatu da azken urteetan. NBEren (Nazio Batuen Erakundea) datuak kontuan hartuz gero, Espainiak, 5.947.106 etorkin ditu, populazioaren %12,75a. Immigrazio hau, 2017ko NBE-ko datuetan oinarrituz, gehienbat Marokotik (%11,91), Errumaniatik (%11,00) eta Ekuadorretik (%7,09) dator.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, EABIko (Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egindako Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkesta) azken datuak kontuan hartuz gero (2014), 259.902 pertsona immigrante bizi dira EAEn, hau da, populazioaren %11,9a. Immigrazio hau, Hego-Amerikatik gehienbat (%50), Europako mendebaldeko herrialdeetatik, Magreb-etik, Errumaniatik eta Marokotik dator neurri handi batean.

EAEko kasuarekin jarraituz, EABIk aztertutako 195.245 (erkidegoaren %8,9) atzerritar jatorriko biztanleetatik, %62,7-ak, hau da, 122.428 pertsonak haien bizilekuan komunikatzeko gaztelania hitz egiten dute. 1.101 pertsonak bizilekuan komunikatzeko

euskara erabiltzen dute, baina hori bakarrik immigranteen %0,6 da. Horrek esan nahi du, Euskal Herrira datozen immigranteen %36,7ak bizilekuan komunikatzeko ez dituela bertan ofizialak diren bi hizkuntzak (euskara eta gaztelania) erabiltzen. Beraz, ondorioztatu daiteke eta errealitate bat da, atzerritarrak etortzean, kopuru handi batek Euskal Herrian ofizialak diren bi hizkuntzak ezagutzen ez dituela eta bertan bizitzeko behintzat gaztelania ikasi behar duela. Kopuru handi hori, Barquinek eta Ruiz Bikandik (2009) dioten moduan atzerritarren %50ari dagokio, hau da, EAera iritsi berriko bi atzerritarretik batek ez daki ez euskara ez gaztelania. Umeen kasuan, eskolan gaztelania nahiz euskara ikasten dute.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 1979. urtean euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialtzat aitortu ziren Autonomia Estatutua egin zen (Etxebarria, 2013). Gaur egun, oraindik indarrean dirau eta bi hizkuntzek ofizialak izaten jarraitzen dute. Bi hizkuntza ofizial izateak, EAeko gizartea elebiduna dela erakusten du. Josep M. Serrak (2002) dioen bezala, hezkuntza elebidunak estatu espainiarrean hedapen handia izan du. Bere hitzekin jarraituz, hizkuntza propioa duten autonomia erkidegoei esker, programa elebidun ugari sorrarazi dira. Hizkuntza propioak direla esatean, gaztelaniaz gain, eremuan hitz egiten den beste hizkuntza bati egiten diot erreferentzia, adibidez Euskal Autonomia Erkidegoan euskararekin gertatzen dena. Gaur egungo Oinarrizko Hezkuntza Curriculumak (236/2015) elebitasuna erronkatzat hartzen du: "Elebitasuna bermatzea da hezkuntza-sistemaren erronketako bat, baina, horrez gain, pertsona eleaniztunak hezi behar ditu, gutxienez atzerriko hizkuntza bat taxuz dakitenak" (61.or).

Elebitasuna zer den hobeto ulertzeko, adituen definizioak erabiliko ditut. Weinreich-ek (1974), elebitasuna bi hizkuntza txandaka erabiltzeko gaitasuna bezala definitzen du. M. Siguan eta W. Mackey-k (1986: 34), berriz, elebitasuna hurrengotzat ulertzen dute: "aquella persona que, además de la competencia que posee en su primera lengua, presenta una competencia similar en otra, que puede utilizar con semejante eficacia". Hau da, pertsona batek lehenengo hizkuntza (ama hizkuntza) batean dituen gaitasunak beste hizkuntza batean izateko ahalmena, biak era eraginkorrean hitz egiteko. Grosjeanen (1985) hitzetan, elebiduna izatea hizkuntza bakoitza norbanako bakoitzaren beharren arabera erabiltzeko gaitasuna da.

Adituek elebitasuna, argi geratu den moduan, era ezberdinetan definitzen dute. Batzuek bi hizkuntzak maila berean edo antzekoan menperatzeari deitzen diote eta beste batzuek, egoeraren beharrei erantzuteko hizkuntzen txandakatzeari. Dena dela, bi hizkuntza edo gehiago menperatzen dituen pertsonari egiten diola erreferentzia argi geratu behar da, eta pertsona hauei elebidunak (bi hizkuntza badira) edo eleaniztunak (bi hizkuntza baino



gehiago badira) deritze. Fenomeno hau aspaldiko gauza da. Normala da munduan elebidunak egotea. Ez dago Europan elebiduna ez den herrialderik. Elebiduna izatea zerbait normala eta positiboa da.

Hariarekin jarraituz eta hezkuntzaren munduan sartuz, elebiduna izatea lehen gaizki ikusia zegoen (Bilbao, 1998). Izan ere, Bilbaok (1998) Siguán eta Mackeyren (1986) eta C. Baker-en (1997) ikerlarien lanetan oinarrituz aipatzen duen moduan, 1928an Luxenburgon Elebitasunari Buruzko Nazioarteko Jardunaldiak antolatu ziren eta bertan hezitzaileak elkartu ziren elebitasunaz hitz egiteko. Adituek ondorioztatu zuten kaltegarria zela umeak ama hizkuntza ez zen beste hizkuntza batean eskolaratzea bai adimenaren eta baita pertsonalitatearen garapenerako ere. Hori islatzen zuten emaitzek, hau da, haur elebidunek eskolan emaitza txarrak lortzen zituzten. Adituen aburuz, bigarren hizkuntza ahalik eta beranduen ikastea hobe. Ondorioz, bigarren hizkuntza irakasteari buruzko iritzi negatiboak nagusitu ziren (Bilbao, 1998).

Bilbaoren (1998) ikerketetan oinarritzen jarraituz, Bigarren Mundu Gerraren ondoren eta 60ko hamarkadan hezkuntza esperientziak beste ondorio batzuk ekarri zituen. 1962an, Montrealgo Saint Lamberteko esperientzia jarri zen abian, haurrak etxekoa ez den hizkuntza batean eskolaratzeko murgiltze programa. Izan ere, Kanadako hiztun gehienak ingeles hiztunak dira baina Quebec-en frantsesa hitz egiten da. Horrela, Montrealen frantses eta ingeles auzoak zeuden. Horregatik, han bizi ziren gurasoek haien haurrak txikitatik frantsesean ere murgiltzea erabaki zuten. Modu honetan, Lambert eta Peal-en (1962) ikerlarien azterketetan oinarrituz, hurrek bai etxean ikasitako ingelesa eta eskolan ikasitako frantsesa primeran hitz egiten zuten eta elebakar ingelesek baino emaitza hobea lortu zuten adimen probetan. Emaitza horiek espero ez zirenez, ondorio handiak izan zituen, hizkuntzalaritzan, psikologian, irakaskuntzan, etab.

Saint-Lamberteko esperientzia oinarritzat harturik, 70eko hamarkadan, programa elebidun berri ugari antolatu ziren independentzia lortu zuten Afrikako eta Asiako hainbat herrialdetan. Guztientzat zen berria eskolako hizkuntza. Emaitzak era guztietakoak izan ziren. Horren ondorioz, kritika gogorak jaso zituen sistema totalitarioekin konparatu zutelako eta horrek ez zuelako inoiz onura handirik ekarri (Bilbao, 1998).

Hezkuntza elebiduna, Bilbao-k (1998) definitzen duen moduan, normalean bi hizkuntza hitz egiten diren ingurunea da. Definizio hori kontuan har daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza egoera definitu nahi izatekotan, aurretik aipatu den moduan euskara nahiz gaztelania baitira bertako hizkuntza ofizialak. Etxebarriak (2013)

adierazten duen moduan, 1982an EAEn ikasle elebidunak sortzeko asmoz, hezkuntzan gaztelaniari euskara gehitu zioten, horrela ikasleei hezkuntza maila ezberdinetan bi hizkuntzak jasotzeko eskubidea aitortuz (10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa). Horren bidez, legean jartzen duen moduan, derrigorrezkoa izango da gurasoek edo tutoreak aukeratu ez duen hizkuntzaren irakaskuntza.

Hezkuntza elebiduna bultzatzeko, 1983. urteaz geroztik Euskal Autonomia Erkidegoan hiru eredu daude: A, B eta D ereduak. Hiru ereduak azalduko dira jarraian, Etxebarriaren (2013) azalpenak baliatuz. Lehenengoan, A ereduan irakaskuntza gaztelaniaz gauzatzen da gehienbat eta euskara ikasgai bezala ematen da. Helburu nagusiak, gaztelania menperatzea eta euskara ondo ulertzea eta egunerokotasuneko gauzetarako ondo erabiltzen jakitea dira. B ereduan, irakaskuntza euskaraz nahiz gaztelaniaz ematen da eta biak dira hizkuntza kurrikularrak. Helburuak, ikasleari euskararen ulermen maila egokia erraztea eta adierazteko ahalmen egokia izatea eta bere ikasketak euskaraz izaten jarraitzeko laguntzea dira. Azkenik, D eredua dago non irakaskuntza euskaraz gauzatzen den eta gaztelania derrigorrezko ikasgai bezala ematen den. Helburuen artean, euskara maila sendotzea dago, bere ezagutza aberastuz eta hizkuntza kurrikularra izanez. Horrez gain, ikasle euskaldunen presentzia indartzea eta gaztelaniaren ezagutza egoki bat bermatzea.

Lan honetan, D ereduan oinarrituko naiz gehienbat, Etxebarriak (2013) aipatzen duen moduan, EAEn gehien erabiltzen den eredua delako (%57.3) eta elebitasunari dagokionez, emaitza onenak lortzen dituen eredua delako. Umeak 2 urterekin eskolatzean, eskolak D eredua jarraitzen baldin badu, ikasle batzuk euskararen irakaskuntzan zerotik hasiko dira, hala nola guraso gaztelaniadunak dituzten haurrak edo jatorri atzeritarreko gurasoak dituzten haurrak eta beste batzuentzat euskara ezaguna izango da, hala nola etxean euskara erabiltzen duten gurasoen haurrak. Beraz, bigarrenek oinarri txiki bat izango dute.

D eredua duten eskolak elebitasun edo eleaniztasun modeloen barnean kokatzen dira; izan ere, elebitasun modeloek ikasle guztientzat formakuntza elebiduna edo eleaniztuna dute helburu bezala. Modelo hauetan, eskolako hizkuntza ez da sozialki hizkuntza nagusia; bigarren hizkuntza atzeritar bat izan daiteke edo EAEn euskararekin gertatzen den bezala, bertako hizkuntza minorizatu bat. Era berean, hizkuntza nagusiaren (kasu honetan gaztelania) irakaskuntza bermatzen da. Eskola horietan, murgiltze programak

izaten dira eskolako hizkuntza edo kurrikularra den hizkuntza ezagutzen ez duten ikasleei (Idiazabal eta Dolz, 2013).

Hizkuntza elebidunak bi helburu izan ditzake: lehenengoa, haurrak eskola bukatzean bi hizkuntza menperatzeko gaitasuna izatea edo bigarrena, ezagututako hizkuntzetako bakarra soilik menperatzea (Bilbao, 1998). Manterolak (2015) aipatzen duen moduan, EAEko euskal eskolen haur elebidunen tipologia ezberdina da: badaude ama hizkuntza bezala gaztelania dutenak (gehiengoa da, %70,9a) eta haien 2H euskara da, baita ere kontrako kasua, ama hizkuntza euskara (%18,39) da eta haien 2H gaztelania dutenak eta beste batzuk etxetik elebidunak direnak, hau da, elebidun goiztiarrak direnak (euskara & gaztelania 2H1 eta %6,3 dagokio). Hauei, jatorri atzerriko ikasleak gehitu behar zaizkie zeinek ama hizkuntza bezala ez duten ez gaztelania ez euskara (%4,38a) eta haien ikaskuntzan H2 eta H3 bezala ikasten dituzten. Kasu hauek gain, badaude etxetik elebidunak direnak eta ez hizkuntza bat ezta bestea ere ez direnak euskara ez gaztelania (Manterola, 2015).

Serrak (2002) adierazten duen moduan, EAEn hedatuena dauden hezkuntza eredu elebidunak bi dira: familiako hizkuntza mantentzeko eredu eta murgiltze programa. Lehenengoa, euskara ama hizkuntzatzat duten ikasleei zuzenduta dago eta bigarrena, berriz, gaztelania edo bertakoa ez den beste hizkuntza bat ama hizkuntza gisa duten ikasleei.

Aurretik, hainbat aldiz murgiltze programa hitza agertu izan da baina oraindik ez da azaldu zer den eta ulertzeko ezinbestekoa izango da ondo azaltzea. Murgiltze-programa, hizkuntza gutxitu bakar batean ematen den hezkuntza da. Oinarria haurra bigarren hizkuntza batean guztiz barneratzea da, hau da, elebidun orekatuak sortzea. Manterolak (2010) esaten duen moduan, lehen hizkuntzaren eta atzerriko hizkuntzen ikasgaiak izan ezik, gainontzeko eduki guztiak (gizarte/natur zientziak, matematika, etab.) ikasleen bigarren hizkuntzan ikasten dira. Adibidea jartzearren eta hobeto ulertzeko, D eredu murgiltze programa da ama hizkuntza edo lehenengo hizkuntza gaztelania duen batentzat.

Argi geratu behar da euskara ama hizkuntza bezala duten ikasleek, ez dutela murgiltze prozesua jarraitzen, eskolan ere euskara izango da hizkuntza kurrikularra eta gaztelania ere ikasten joango dira. Horrela, euskara ama hizkuntza gisa eta baita gaztelania ama hizkuntza bezala duten ikasleek ere, ingurunean nagusitua den hizkuntza -kasu honetan gaztelania- gizartean (gaztelania ama hizkuntza dutenen kasuan, etxean ere bai eta euskara ama hizkuntza bezala dutenok eskolan ere bai) ikasiko dute, eta bestea, euskara,

eskolan (euskara ama hizkuntza bezala duten ikasleek etxean ere bai). Hala ere, Manterolak (2010) dioen gisara, murgilketaren helburu nagusia hitzun elebidunak sortzea da, alegia, ez bakarrik eskolan ikasgaiak erabiltzeko ematen den hizkuntza ikastea, baizik eta ikasleek etxetik dakarten hizkuntza ere garatzea bilatzen du. Horrela, etxean ikasten dena eskolan jarraipena du.

Serrak (2002) murgiltze programen zazpi ezaugarri bereizten ditu:

1. Ikasleen egoera soziolinguistiko zehatz bati eta helburu linguistiko konkretu bati jarraitzen diote, bi hizkuntzatan komunikazio gaitasuna lortuz eta baten ikasketak bestearen galtzea eragin gabe.
2. Ikasleek hasieran ez dute eskolako hizkuntza ezagutzen etxekoa eta eskolakoa ez delako berdina. Eskolatzean hasten dira hizkuntza horretan irakurketa-idazketaren irakaskuntza-ikaskuntzarekin.
3. Bere abiapuntua hizkuntzaren irakaskuntza instrumentala da, hizkuntza ikasteko hizkuntzarekin gauzak egiten dituzte. Denborarekin ikasleak bigarren hizkuntza eskola komunikatzeko tresnatzat ikusiko du.
4. Gurasoen inplikazioa bermatu egiten da, programa hasi baino lehen gurasoek Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua onartzen dute. Hasieran bi hizkuntzen aldeko jarrera erakutsiz gero, eragin positiboa izango du.
5. Irakasle elebidunak dituzte bigarren hizkuntza lehenengo hizkuntzaren ekarpenekin osatzeko ikasle bakoitzaren komunikazio beharrei erantzuteko.
6. Irakasleek ulermen testuinguruak sortzen dituzte non ikaslea ez da behartzen bigarren hizkuntzan mintzatzera baizik eta bere esku uzten da zein hizkuntza erabili erabakitzea.
7. Ikasleen bigarren hizkuntzara murgiltzea ez da oinarritzen bigarren hizkuntzaren trataeran bakarrik, baizik eta lortu nahi den helbururako egokia den metodologiari erantzuna eman behar dio.

Hala ere, Serrak (2002) murgiltze programen inguruan aurkezten dituen zazpi puntu hauek D ereduak ez ditu guztiak betetzen, nahiz eta D ereduak murgiltze programatzat hartu ama hizkuntza gaztelania duten ikasleentzat. Puntu hauen artean, lehenengo hirurak eta bosgarrena betetzen direla esan daiteke baina lau, sei eta zazpigarrenak ez. Laugarrenari dagokionez, ikasleen gurasoek haien seme-alabak D ereduan matrikulatzen dituzte euskara ikastea nahi dutelako baina askotan ez dago D ereduak ez den beste aukerarik. Seigarrenaren kasuan, eskolan ikasleei ama hizkuntza gaztelania badute askotan ez zaie gaztelaniaz hitz egiten uzten eta euskaraz hitz egitea gehiegi eskatzen zaie. Bukatzeko,

zazpigarrenak ikasleen bigarren hizkuntzara murgiltzea bigarren hizkuntzaren trataeran bakarrik oinarritzen ez dela dio baina errealitatean bakarrik bigarren hizkuntzaren trataeran oinarritzen da irakaskuntza-ikaskuntza prozesua euskaraz gauzatzen delako. Murgilketaren suposizioetako bat, Manterolak (2014) adierazten duen moduan, ama hizkuntza ez lantzearena eta bi hizkuntzak batera ez joatearena da eta honi Cumminsengan oinarrituz, irakaskuntzaren ikuspegi elebakarra deitzen dio.

Murgilketa adin ezberdinetan egin daiteke eta ikerketek ez dute argi zein etapa den eraginkorrena. Murgiltze goiztiarra, Lehen Hezkuntzan hasten da, etapa honetan, irakaskuntza bigarren hizkuntzan ematen da, hau da, gaztelania ama hizkuntza dutenen kasuan, euskaran; idazten eta irakurtzen ikasten duten hizkuntzan. Kasu honekin jarraituz, Serrak (2002) dioten bezala, ezagutza hori bigarren hizkuntzan sistematizatzen da Lehen Hezkuntzako 1. zikloan eta garai berean gaztelaniazko irakurketa eta idazketa sartzan dira. Bere hitzekin jarraituz, aurrerago, irakaskuntza bigarren hizkuntzan mantentzen da eta lehen hizkuntza ikasgai bezala lantzen da. Murgiltze berantiarraren kasuan, Besalúk eta Vilak (2007) aipatzen duten eran, eskolako lehen urteetan ikasleen ama hizkuntza erabiliko da eta beranduago 2H sartzan joango da. Horrela, murgiltze osoa beranduago gauzatuko da, Lehen Hezkuntzan edo Bigarren Hezkuntzan.

Hala ere, Manterolak (2010) Geneseeren (2004) ikerketak baliatuz, bai murgilketa goiztiarra eta baita berantiarra ere, ikaslearen garapen elebiduna eraginkorra izateko prestatuak daudela eta izan daitezkeela dio, betiere pedagogia egokia eta eraginkorraren bidez egiten badira eta umearen faktore soziokulturalak, politikoak eta psikologikoak kontuan hartuz gero. Esate baterako, zein den eskolako hizkuntza, zein den gizartean nagusitua den hizkuntza, etxean hitz egiten den hizkuntza, zer aukera dituen umeak hizkuntza hori praktikatzeko, gurasoen jarrera, etab. Baina, ezin da gizarte guztietan pedagogia berdina erabili gizarte bakoitza ezberdina delako.

Aurretik D eredia murgiltze programa ama hizkuntza edo lehenengo hizkuntza gaztelania duen batentzat dela esan da. Aldiz, ama hizkuntza euskara duen batentzat, D eredia mantentze programa izango litzateke. Programa mota hau, Bilbaok (1998) esaten duen bezala, hizkuntza gutxituetako haurrei zuzendua da, eskolan gizarteko hizkuntza nagusia (gaztelania) ikasteaz aparte, etxekoa ere mantentzeko eta lantzeko (euskara). Bilbaoren hitzekin jarraituz, programa hauen ezaugarri nagusia irakaskuntza umearen ama hizkuntzan egiten dela da eta tokiko neurrian hizkuntza nagusia (gaztelania) sartzan joaten dira. Horrela, bi hizkuntzak erabiltzen dira eta hurrek elebitasun maila on bat lortzen dute.


Atzerritarren kasua, Manterolak (2015) Eibarren emandako hitzaldian esaten duen moduan, murgiltze edo azpiratze programen bidez egiten da. Aurretik murgiltze programak zer diren azaldu da, programa mota hau ikasle etorkinen ama hizkuntza gaztelania duten haurrekin erabili daiteke soilik. Manterolak defendatzen duen bezala, kasu honetan irakasleak ikasleen ama hizkuntza ezagutzen du, eskolan presentzia du eta tratatu egiten da hura garatzen jarraitzeko eta gainera balioetsi egiten da nahiz eta ez izan eskolaren eskolatzeko hizkuntza.

Kontrakoa gertatzen da jatorria atzerrian duten ikasleak eskolatzean azpiratze programa erabiltzen bada; izan ere, irakasleek ez dute ezagutzen ikasleen ama hizkuntza eta horren ondorioz, eskolan ez da tratatzen (Manterola, 2015). Bilbaok (1998) aipatzen duen gisara, programa hauen helburua ez da izaten haurrak etxeko hizkuntzan eta eskolakoan trebatzea, baizik eta komunitate txikietako haurrak, gehiengoaren hizkuntza eta kulturara iragatea eta beraiena alboratzea nahiz eta haurrak elebidunak bihurtzen dituzten. Irakaskuntza gehiengoaren hizkuntzan ematen da, 2. hizkuntzan, alegia eta inolako egokitzapenik gehienetan. Orduan, eskolan ikasitakoak etxean ikasitakoari kentzen dio.

Manterolak (2015) Vilaren ideietan oinarrituz, eskolan atzerritarrei hizkuntza berri bat irakastea kontuan hartu beharreko faktore batzuk plazaratzen ditu:

- Irakasleek haurrak duen ama hizkuntzaren maila zein den ondo ezagutu.
- Umeek zer eskolatzeko maila daukaten, irakurtzen edo idazten badakiten.
- Zer nolako jarrera duten hizkuntzekiko.
- Familiaren hezkuntza maila zein den eta zer itxaropen dituzten eskolarekiko.

Azpiratze programena ez bezala, bai murgiltze programen eta baita mantentze programen helburua, pertsona elebidunak sortzea da, elebidun orekatuak lehenengoaren kasuan eta elebitasun maila ona bigarrena kasuan, alegia. Elebidun izateak bi hizkuntzekin interakzioa suposatzen du. Cumminsek 1979an, norbanakoak elebidunak bilakatzeko prozesuan, bi hizkuntzen arteko erlazioa ezarri zuen Elkarmenpekotasunaren Teoriaren bidez. Honen arabera, Bilbaok (1998) azaltzen duen moduan, haurrak eskolak lortuko duen gaitasun maila etxeko hizkuntzan lortzen duenarekin lotua dago. Cumminsen ustez, hizkuntza gaitasunak iceberg baten antza du (Ikus irudia). H1-ek ama hizkuntzari egiten dio erreferentzia eta H2-k bigarren hizkuntzari, eskolan ikasten ari den hizkuntzari.




**1.-Irudia:** Cummins-en Elkarmenpeketasunaren Teoria. Iturria: Baker, C (1996) in Bilbao (1998).

Irudia azalduz, azaleko mailan (ahoskatzea, hiztegia ezagutzea, gramatikako arauak aplikatzea, etab.), hizkuntzek haien artean erlaziorik ez dutela eta bakoitzak bere gaitasunak dituela ematen du baina sakoneko gaitasunean, agerikoa ez den mailan, adimen-operazioak (sintesia, analisia, arrazoitzea, ebaluazioa, etab.) toki berean egiten dira eta komunikazio gaitasuna bera da hizkuntza guztietarako. Beraz, Bilbao (1998) dioen moduan, hizkuntzak sakoneko gaitasunaren aldetik bat eginda daude eta H1-eko sakoneko gaitasunak H2-ri transferitzen dira. Orduan, hizkuntza bat ondo ikasiz gero, sakoneko gaitasuna lortuko da eta bigarren bat ikastea errazago egingo da komunikazio gaitasuna berdina delako hizkuntza guztientzako, beraz, oinarria badago. Teoria honen gakoa Bilbao-ren (1998) hitzak erabiliz, hizkuntza batean landutako sakoneko gaitasunak bigarren hizkuntzarako ere balio izango duela da.

H1etik H2ra sakoneko gaitasunen transferentzia hori, Cumminsek (2000) honela definitzen du: "haurrak eskolan X delako hizkuntza bat erabiliz lantzen dituen gaitasun komunikatiboak Y delako beste hizkuntza batean erabili ahal izango ditu, baldin eta Y hizkuntza hori -eskolan edo gizartean- erabiltzeko aukera egokirik eta hura ikasteko motibazio nahikorik badu" (Bilbao, 1998). Transferentzia honetan, Idiazabal eta Larringanen (1997, apud Manterola, 2010) arabera, mintzaiaren alderdi diskurtsiboak, hau da, koherentzia eta kohesioa, ere transferitu egiten dira bi hizkuntzen artean.

Aurretik aipatu den moduan, lehen elebitasuna gaizki ikusia zegoen. XIX. eta XX. mendeko ikerlariek zioten elebitasuna kaltegarria zela adimenarentzat. Baina Montrealgo esperientzian ikusi zen moduan, elebidunek elebatarrek baina emaitza hobetoak atera zituzten adimen probatan (Bilbao, 1998).

Emaizta hauek elebitasuna eta adimenaren artean erlazioa dagoela frogatu zuten (Bilbao, 1998). Orduan, Cummins-ek 1970ean, Atalasaren teoria garatu zuen. Teoria honen arabera, bi atalase bereizi zituen: lehen eta bigarrena. Hiztun batek bi hizkuntzetan maila baxua badu, ez da lehen atalasea iristen. Beraz, adimen gaitasunerako desabantailak izango ditu. Aldiz, bietako hizkuntza batean maila ona badu, lehen atalasea iritsiko da baina oraindik ez da bigarreneira iritsiko. Bertan, ez du ez adimen abantailarik ezta desabantailarik izango. Azkenik, elebidun orekatua bada, hau da, maila ona badu H1 eta H2n, bigarren atalasea helduko da eta adimen aldetiko abantailak lortuko ditu (ikus hurrengo irudia).



**2.- Irudia:** Toukoomaa, Skutnabb-Kangas eta Cummins-en Atalasaren Teoria, Iturria: Hoffmann (1991) in Bilbao (1998).

Cummins-en Atalasaren Teoriak frogatzen duen moduan, ikasleek elebitasun orekatua lortzean, adimen aldetiko abantailak izango dituzte. Aurretik azaldu den bezala, murgiltze programen helburua, elebidun orekatuak sortzea da. Orduan, helburu hau lortze aldera, ikasleek adimen aldetiko abantailak lortuko dituzte. Duela urte batzuk elebiduna izatea gaizki ikusia zegoen arren, gaur egun elebidun izatea oso garrantzitsua eta aberasgarria da eta ikerketek frogatu duten eran, abantailak eragin ditzake. Horrez gain, EAE bezala, bi hizkuntza hitz egiten diren eta ofizialak diren ingurune batean, are eta garrantzitsuago. Gainera, bi hizkuntzek haien arteko antza izateak asko lagundu dezake bigarren hizkuntzaren ikaskuntzan eta irakaskuntzan eta horretarako ditugu aurretik azaldu diren hizkuntza programak.

Besalúk eta Vilak (2007) dioten moduan, eskola eta hizkuntzaren arteko erlazioa ohikoa ez den beste modu batean planteatu behar da. Izan ere, gizartea bilakatzen ari den ahala, eskola ere aldatu behar da. Kasu honetan, aurretik azaldu den moduan, eskoletan



geroz eta aniztasun gehiago dago hizkuntza, nazionalitate eta kulturei dagokionez. Oinarrizko Hezkuntza Curriculumak (236/2015) hurrengo dio:

*“Hezkuntza elebidunetik hezkuntza eleaniztunera aldatzen ari da gure erkidegoko irakaskuntza; ondorioz, gutxienez hiru hizkuntza irakasten eta ikasten dira, eta ohikoa da horietako batzuk komunikazio-bitarteko moduan erabiltzea ikasgaiak irakastean. Egoera horri erreparatuta, irakasteko moduak hausnartu eta egokitu behar dituzte hizkuntzen irakasleek, hizkuntza batean ikasitakoa gainerako hizkuntzak ikasteko erabil dezaten ikasleek” (61.or).*

Egoera hau kontuan hartuz eta horri erantzuteko, Bernausek (2004) adierazten duen bezala, gaur egungo eskola guztiek “modelo berria” hartu behar lukete kontutan. Dena dela, bere hitzekin jarraituz, estatuko eskola askotan modelo berriak esaten duena jarraitzen den arren, era zatituan eta inongo helburu komunik gabe egiten da, hizkuntzen arteko ezberdintasunei erreparatu eta aipu egin gabe.

Hona hemen, modelo tradizionalaren eta modelo berriaren arteko aldeak hizkuntzen irakaskuntzari dagokionez:

<b>MODELO TRADIZIONALA</b>	<b>MODELO BERRIA</b>
Enfasia nazio edo estatuan eta bertako hizkuntza identitatetzat jartzean datza.	Enfasia herritartasun europarrean eta aniztasun linguistikoan dago.
Eleaniztasuna gizarterako arazo bat da.	Eleaniztasunak gizartea aberasten du.
Elebitasuna era kultura ezberdineko jatorriak isilduak dira.	Elebitasunak eta kultura ezberdineko jatorriak onespina dute.
Eskolan hezkuntza elebiduna arazotzat ikusten da. Umeei nazioko hizkuntzan ikasi behar dute aurrerago beste hizkuntza batzuk ikasteko.	Hezkuntza elebiduna eta eleaniztunak momentu bereko beste hizkuntza batzuen ikaskuntzari mesede egin diezaieke eta horregatik babesten da.
Naziokoa ez den beste hizkuntza bat hitz egiten dutenok kanpotarrak dira.	Beste hizkuntza batzuetako hiztunak gure komunitatearen parte dira.
Beste hizkuntza batzuk ikastea zaila da.	Beste hizkuntza batzuk ikastea normala da.
Azken helburua nazioko hizkuntzan bertako	Hizkuntza ezberdinetako kompetentzia

pertsona baten maila eskuratzean datza.	komunikatiboaren oinarritzko mailak balioesten dira, bizitzan zehar bereganatzen joango direnak.
Irakaskuntza-ikaskuntza helburu linguistikoetan oinarritzen da gehienbat. Kultura ez da kontuan hartzen edo modu estereotipatuan aurkezten da.	Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan elementu kulturalak kontuan hartzen dira ikasleria kulturantzitasunaz kontzientziatzeko eta beste hizkuntza, kultura eta hiztunak baloratzeko eta errespetatzeko.
Irakaskuntza-ikaskuntza hizkuntza bakar batean zentratzen da. Ezin dira bi hizkuntza edo gehiago batera ikasi.	Hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzak hizkuntza ezberdinen arteko erlazioa ezartzen du ikasleak kontzientzia linguistikoa bereganatzeko asmoz.
Hizkuntzen ikaskuntza gehiengoarentzat elitista eta problematikoa da.	Hizkuntzen ikaskuntza gehiengoaren esku dago. Horregatik, gizarte eleaniztunetan eta kulturantzitasunetan bizi garenen arteko komunikazioa erraztu behar du.

1. **Taula.** Modelo tradizionala eta modelo berria aurrez aurre. Iturria: Bernaus, (2004; ikus, halaber, Lasagabaster eta Serra, 2005, 15). Itzulpena Urtzi Reguero irakaslearen Lehen Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak Testuinguru Elebidunetan ikasgairako prestatutako materialetik hartu dut.

Atal honen hasieran EABItik jasotako datuek erakutsi duten moduan, EAE-n herrialde ezberdinetako pertsona asko bizi dira (%11,9a), horrek kultura eta hizkuntza ezberdinen presentzia suposatzen du. Beraz, aniztasun handia dago eta hori oso aberasgarria izan daiteke bertan bizi diren herritar guztientzat. Azken aspektu hau eskolak ulertu beharreko aspektu bat da eta modu aberasgarrian aplikatu ikasleen ikaskuntza prozesua hobetzeko asmoz. Beraz, arestian aipatutako ezberdintasunen arabera, argi geratzen da modelo tradizionala atzean uztea zentzuzko erabaki bat dela, modelo berria tradizionalarekin konparatuz, gaur egungo egoera soziokulturalari hobeto egokitzen zaiolako. Betiere, Bernausek (2004) adierazten duen bezala, proiektu linguistikoaren planteamendu egokia eginez eta irakasleriaren koordinazioa aintzat hartuz.

### **3. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK**

Ikerketan zoriz aukeraturiko Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat ikastetxek hartu dute parte, bertako eskolek ama hizkuntzari egiten dioten tratamendua ezagutzeko eta aztertzeko. Honetan, helburu eta hipotesi batzuk adieraziko dira, amaieran lortzen diren emaitzekin egiaztatzeko.

Alde batetik, helburuei dagokionez, ikerketaren helburuak hurrengoak izango dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoko eskolen hizkuntzaren trataera aztertea, ikasleen ama hizkuntza oinarritzat harturik.
- Ikasleek bertako bi hizkuntza ofizialak menperatzera heltzen direla egiaztatzea.
- Atzerritarrei hizkuntzak irakasteko eskolek erabiltzen duten tratamendua ezagutzeta.
- Ikasleek bi hizkuntzetan idatziz, ahoz, entzumenez eta irakurmenean lortzen duten maila analizatzea.

Beste aldetik, hipotesiak kontuan hartuz gero, hurrengoak izango dira:

- EAEko ikastetxe batzuek haurrak eskolatzean geletan ama hizkuntzaren arabera sailkatzen (oreka bat bilatu edo bereizi) dituzte.
- Ama hizkuntza gaztelania dutenek Lehen Hezkuntza amaitzean, euskara ez dute ondo menperatzen bukatzen.
- Ama hizkuntza euskara dutenek Lehen Hezkuntza amaitzean, gaztelania ondo menperatzen bukatzen dute.
- Gaztelaniaren ikaskuntza ama hizkuntza euskara dutenen kasuan gizartearen eraginez da.
- Ikasleek bi hizkuntzetan idatziz, ahoz, entzumenez eta irakurmenari dagokionez ez dute maila berdina lortzen.
- Haur etorkinek hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzan tratamendu berezia jasotzen dute.


#### **4. METODOA**

Arestian aipatu bezala, lan honek EAEko ikastetxeek hizkuntzari egiten dioten tratamendua aztertzea du helburu. Lan honen xedea, ikastetxeek haurren ama hizkuntzari ematen dieten garrantzi eta tratamendua aztertzea izango da. Horrez gain, ikasle etorkinen egoerari ere egingo zaio erreferentzia, zer esan handia baitute. Analisi hau egiteko metodoari dagokionez, galdetegi bat bidali dugu eskoletara eta horietako emaitzak baliatu ditugu.

Galdetegi hau osatzeko parte hartu duten ikastetxeak 15 izan dira. Hauek EAEko hiru probintzietan daude eta 4 ikastetxe publikok eta 11 kontzertatuk hartu dute parte eta beren ikastetxeko egoera plazaratu dute. Hala ere, probintzia bakoitzeko ikastetxe kopurua ez da berdina izan. Izan ere, Gipuzkoan zazpi ikastetxeko lagina erabili da, Araban eta Bizkaian probintzia bakoitzeko lau ikastetxeko lagina hartu den bitartean.

#### **Ikastetxea zein probintzietan kokatuta dago?**

15 erantzun




1. Grafikoa: ikastetxearen kokapena.

Esan bezala, EAEko hiru probintzietan kokatuak dauden ikastetxeak hartu dira kontuan galdetegi hau burutzeko, eta ahalik eta ingurune zabalena hartu da aintzat; ikastetxea aurkitzen den ingurunea euskalduna, gaztelaniaduna edo bien antzeko presentzia izan daitekeelarik.

Ikastetxea kokatuta dagoen ingurunea (herria, hiria, auzoa) euskalduna edo erdalduna da?

15 erantzun




2. Grafikoa: ikastetxearen ingurunea.

Ikasleen ama hizkuntza aztertuko dela kontuan hartuz, ikastetxeen artean bariazioak daude. Batzuetan, ama hizkuntza euskara duten ikasleak dira ugariena, beste batzuetan ama hizkuntza gaztelania dutenak, baina badaude kasuak non aurreko bien presentzia antzekoa den eta amaitzeko, ama hizkuntza moduan beste hizkuntza bat dutenak.

Ikasleen ama hizkuntzari dagokionez, zuen ikastetxean zer da ugariagoa?

15 erantzun



3. Grafikoa: ikastetxearen ikasleen ama hizkuntzaren nagusitasuna.

Datuak biltzeko, Google Forms zerbitzua erabili da. Galdetegia, 15 galderez osatzen da. Lehen lau galderak, informazio orokorrari buruzkoak izango dira eta aurretik azaldutako ezaugarriak hartuko ditu aintzat. Hau da, ikastetxea zein probintzian kokatzen den, bere izaera zein den, ikastetxeko ikasleen ama hizkuntza ugariena zein den eta aspektu soziolinguistikoa kontuan hartuz, ingurunea nolakoa den.

Hurrengo zortzi galderetan ikastetxe bakoitzak haurrak eskolatzean eta beren ikaskuntza prozesuan zehar erabiltzen duen tratamendua ezagutzeko dira, betiere, ikasleen ama hizkuntza abiapuntutzat harturik. Amaitzeko, azken hiru galderek ikasle etorkinei hizkuntzak irakasteko egiten zaien tratamendua ezagutzea du helburu, kasu hipotetiko bat emanaz eta Vilaren ustez, hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzan parte hartu beharko luketeen lau faktore aurkeztuz.

Prozedurari dagokionez, galdetegi bat osatu da egindako marko teorikoan oinarrituz. Galdetegi hau, hiru probintzietako ikastetxeei bidali zaie eta hamabosten erantzuna jaso da. Hamabost erantzun horiek aztertu egin dira, lehendabizi probintziaka eta ondoren, ondorioetan denak kontuan hartuz, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera aztertuz (Ikus galdetegi osoa 1. eranskinean).

Analisia egiterako orduan, argi geratu behar da EAEn ikastetxe asko daudela eta 15 ikastetxeko laginak agian ez duela errealitate osoa erakusten lagin txikia delako. Horregatik ezingo da orokortu baina errealitatera ahalik eta hurbilketa handiena egiten saiatuko naiz, betiere ikastetxe hauen erantzunak abiapuntutzat harturik eta hauetan oinarrituz.

## **5. EMAITZAK**

Aurretik aipatu den moduan, ikerketa honetan erabilitako lagina 15 ikastetxekoa da non hauetatik zazpi Gipuzkoakoak diren, lau Bizkaikoak eta beste lau Arabakoak. Hurrengo paragrafoetan galdetegiak erakutsitako emaitzak galderaz galdera partekatuko dira, lehenik eta behin erantzunen edukiak taula baten laburtuz eta ondoren paragrafoetan aipagarriena azpimarratuz. Galdera batzuk hurrengoekin lotura zuzena dute eta elkartu egin dira. Galdera bakoitzean, hiru taula egongo dira eta hauetatik lehenengoa Gipuzkoakoa izango da, bigarrena Bizkaikoa eta hirugarrena Arabakoa.

Probintzia bakoitzaren testuinguruarekin hasiz, Gipuzkoako zazpi eskolek parte hartu dute. Zazpi eskola hauetatik sei kontzertatuak dira eta bat publikoa. Ikastetxea kokatuta dagoen inguruneari erreparatuz gero, bi ikastetxe ingurune euskaldunean kokatuta daude (%28,6), bat (%14,2) gaztelaniadunean eta lauk (%57,2) antzekotzat definitzen dute, hau da, gaztelaniaduna nahiz euskalduna dela. Ikasleen ama hizkuntzari dagokionez, hiru ikastetxeetan (%43) euskara ama hizkuntza bezala duten ikasleen presentzia da ugariagoa, bitan (%28,6) ama hizkuntza gaztelania duten ikasleak, beste batean (%14,2) aurreko bien antzeko presentzia eta azkenik, beste ikastetxe batean (%14,2) euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat ama hizkuntzatzat duten ikasleen duten presentzia (ikus laburpena 2. eranskinean).

Bizkaiarekin jarraituz, ikerketan Bizkaiko lau ikastetxeek hartu dute parte. Hauetatik hiru kontzertatuak dira eta bat publikoa. Ikastetxea kokatuta dagoen inguruneari erreparatuz gero, bi (%50) ingurune euskaldunean kokatuta daude, bat gaztelaniadunean (%25) eta bestearen ingurunea euskalduna eta gaztelaniaduna da (%25). Ama hizkuntzari dagokionez, bi (%50) ikastetxeetan ama hizkuntza gaztelania duten ikasleak nagusitzen dira, batean (%25) euskara dutenak eta bestean (%25) aurreko bien antzeko presentzia (ikus laburpena 3. eranskinean).

Bukatzeko, Araban, Bizkaian bezala, lau ikastetxeen emaitzak jaso dira. Hauetatik, bik (%50) izaera kontzertatua dute eta beste bik (%50) publikoa. Inguruneari dagokionez, ikastetxe guztien ingurunea gaztelaniaduna (100%) da. Bukatzeko, ama hizkuntzaren nagusitasunari erreparatuz gero, hiru ikastetxeetan gaztelania (%75) nagusi da eta bestean euskara eta gaztelaniaren (%25) antzeko presentzia da (ikus laburpena 4. eranskinean).

## Galdetegiaren emaitzak

**1. Galdera:** Haurrak Haur Hezkuntzan hastean, ama hizkuntzaren arabera geletan banatzeko irizpiderik erabiltzen al duzue? Zein? Baiezko kasuan, zer adinera arte egiten da banaketa hau? Ezezko kasuan, haurren hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza zein modutan egiten da.

	Bai	Ez	Beste batzuk
Gipuzkoa	0 ikastetxe	5 ikastetxe	2 ikastetxeek kontuan hartu

**2. Taula:** Gipuzkoako 1. galderaren emaitzak (ikus zehatzago 5. eranskinean).

Emaitzek erakusten duten moduan, Gipuzkoan ikastetxe guztiek haurrak ama hizkuntzaren arabera geletan sailkatzen dituzten galderari ezezkoa ematen diote. Hala ere, horietako bik ezezkoa eman arren, kontuan hartzen duten faktoreetako bat dela adierazi dute. Izan ere, ikastetxe batek ikasleak geletan banatzeko haien ama hizkuntza, auzoa, sexua, adin tartea, etab. erabiltzen dituzte. Beste ikastetxeak, talde heterogeneoak egiteko ikasleen ama hizkuntza kontuan hartzen dutela adierazi du, izan ere, elkarrekintza eta hartu-eman da hizkuntzak ikasteko modua beraz, errealitatea aintzat hartu beharrekoa dela dio. Beraz, esan daiteke haurrak irizpide horren arabera banatu ez arren, kontuan hartzen den faktore bat dela.

Beste bi ikastetxeek, ikasleak irizpide horren arabera banatu ez arren, murgiltze programa erabiltzen dutela diote, euskara ardatz izanda hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza eleanitza lortzeko (gaztelania-ingelesa-frantsesa) batek eta besteak Haur Hezkuntzako taldeetan hasten direnak etapako irakasle batekin hizkuntza errefortzuko saioak izaten dituztela adierazten du, gela barruan horretarako egokitutako txoko batean, talde txiki baten barruan eta ez bakarka.

Beste ikastetxe batek hasieran banaketa ama-hizkuntzaren arabera egin zela adierazten du baina geroago nahastu egiten dituztela. Beste batek, lehen bereizketa hori egiten zutela baieztatu du, baina duela urte batzuk ez dutela horrela egiten eta ikasleak nahasten dituztela. Ikastetxe batek bereizketa hori egiten ez dutela aipatu dute baina ikasle euskaldun gutxi dituztelako dela adierazi du. Beste guztiek, ikasleak nahasten dituzte. Dena euskaraz egiten dela esaten dute gehienek, D eredu jarraituz eta Haur Hezkuntzan jasotzen duten hizkuntza euskara izanik.



	Bai	Ez	Beste batzuk
Bizkaia	2 ikastetxe	2 ikastetxe	0 ikastetxe

**3. Taula:** Bizkaiko 1. galderaren emaitzak (ikus zehatzago 6. eranskinean).

Bizkaiko emaitzekin hasiz, bi ikastetxeek ezezkoa eman dute eta beste biek baiezkoa. Ezezkoen kasuan, ikastetxe batek gelak ama hizkuntzaren arabera orekatu egiten dituztela aipatzen du eta besteak, aldiz, ez dutela inongo banaketarik egiten, modu naturalean egiten dutela.

Baiezkoen kasuan, eredu desberdinak daudela esaten du batek eta besteak, ordea, banatzeko irizpidea gaztelania eta euskara ama hizkuntza bezala duten umeei banatzea litzatekeela dio eta Lehen Hezkuntzako 3. mailara arte egiten dela banaketa. Hobeto azaltzeko, adibide batez baliatzen da eta hurrengoa da “Bi hizkuntzak ama hizkuntza duten umeen kasuetan beste gela batean ere sartzan ditugu. Horrela hiru gela ezberdin ditugularik, euskara; gaztelania eta euskara-gaztelania ama hizkuntza duten ikasleak”.

	Bai	Ez	Beste batzuk
Araba	1 ikastetxe	3 ikastetxe	0 ikastetxe

**4. Taula:** Arabako 1. galderaren emaitzak (ikus zehatzago 7. eranskinean).

Arabari hasiera emanez, hiru ikastetxeek ezezkoa eman dute eta batek baiezkoa. Ezezkoen artean, hiru ikastetxeak bat datoz eta banaketan ama hizkuntza ez dela kontuan hartzen aipatzen dute. Gainera, batek banaketa abizenen arabera egiten dela adierazten du. Hala ere, aurrerago talde berezituak egiten dituztela aitortzen du ikastetxe batek baina ikasle etorkinei bideratua dago, izan ere, astean zehar ordu batzuetan elkartzen dira eta gaztelania eta euskara ikasten eta praktikatzan dute.

Baiezkoa eman duen ikastetxeak, ama hizkuntza kontuan hartzen dela dio gela guztietan euskaldun kopuru berdina sartzan saiatzen direlako. Horrela, oreka bat lortzen saiatzen direla dio. Horrez gain, eskolan A eta D ereduak daudela azaltzen du eta eskolan haur gaztelaniadun gehiago egon arren, D ereduan ez dela horrela eta ama hizkuntza gaztelania eta euskara dutenen kopurua antzekoa dela adierazten du.

**2.Galdera:** Urteak aurrera joan ahala, metodo honen emaitzak nabarmendu daitezke?

	Bai	Ez	Beste batzuk
Gipuzkoa	6 ikastetxe	1 ikastetxe	0 ikastetxe

**5. Taula:** Gipuzkoako 2. galderaren emaitzak (ikus zehatzago 8. eranskinean).

Ikastetxe guztiek bat izan ezik haien metodoa eraginkorra dela uste dute, urteak aurrera pasatu ahala metodoaren emaitzak nabarmendu daitezkeela. Hainbat eskolek ikasleek normalean euskara modu egokian bereganatzen joaten direla adierazten dute tartean aparteko arazorik ez badago (emozionala, adimena, baztertze egoerarik...). Euskara irakaskuntzaren ardatz duen ikastetxeak urteak daramatzatela horrela esaten du eta ama-hizkuntza euskara ez duten hurrek maila oso egokia lortzen dutela.

Bigarren galdera hau hirugarren eta laugarren galderekin guztiz lotuta doa eta hauei erreferentzia egingo zaie jarraian. Hirugarren galderan metodoaren onurak galdetzen dira. Murgiltze programa erabiltzen duten ikastetxeek onuren artean hizkuntza bakoitzean ezarrita dauden maila lortzen dela eta testuinguru normalizatu eta egokian murgiltzen direla adierazten dute, ikasten eta erabiltzen doazen hizkuntza/k berri horretan/horietan (ikastetxe baten kasuan, euskaraz lehendabizi eta aurrerago gaztelanian). Laugarren galderan metodoaren alde txarreatatik galdetzen da eta murgiltze programa erabiltzen dutenek alde txarrak ez dituela eta ezagutzen duten sistemetatik egokiena dela adierazten dute.

Ikasleak nahasten dituen ikastetxe batek maila homogenea lortzea eragiten duela adierazten du. Beste ikastetxe batek euskarazko giroan eta estimulu guztiak euskaraz jasotzeak onurak dakartzala jasotzen du, eguneroko bizipenak hizkuntza horretan direlako. Beste batek ikasle gehienak euskara jakin gabe joaten direla eta ikasten bukatzen dutela esaten du. Alde txarren artean, ikastetxe hauetako biek haien metodoari alde txarrik ikusten ez dizkiotela esaten dute. Beste batek, ezin dutela beste era batean egin azaltzen du, ikastetxean dauden ikasleen euskaldun kopurua txikia delako. Bukatzeko, beste ikastetxe batek ikasle batzuen potentziala murrizten dela aitortzen du, izan ere, batzuek euskara hobeto jakin ahal lukete eta gaztelaniakoekin nahasten ez dutela haien gaitasun guztia garatzen.

Ikastetxe batek bere metodoaren emaitzak printzipioz nabarmentzen ez direla adierazten du eta baita, onurak ikusten ez dizkiola ere. Hala ere, alde txarren inguruan galdetzean, ez dituela dio, izan ere, haientzat garrantzitsuena elkarbizitza da.

	Bai	Ez	Beste batzuk
Bizkaia	4 ikastetxe	0 ikastetxe	0 ikastetxe

**6. Taula:** Bizkaiko 2. galderaren emaitzak (ikus zehatzago 9. eranskinean).

Galdera honetan Bizkaiko ikastetxe guztiak bat datoz eta denek haien metodoa eraginkorra dela adierazten dute. Hori justifikatzeko, hainbat arrazoi partekatzen dituzte; oreka bilatzen duten ikastetxeen artean, batek maila baxuagoa duten ikasleen maila hobetzeko baliagarria dela aitortzen du eta besteak haur eta gazte guztiek euskara eta gaztelania menperatzen dutela. Ikastetxe batek baiezkoa eman arren, etxetik euskara dutenek maila hobea lortzen dutela adierazten du.

Bereizketa egiten duen ikastetxeak ere baiezkoa eman du eta ikasle guztientzat etxeko hizkuntza eta bestea ikasterakoan eragin hobezina dakarrela aipatzen du, horrela, ikasleak beste hizkuntzak ikasten dituen heinean ama hizkuntza indartuko duela baieztatzen.

Lau ikastetxeek haien metodoak onurak dituztela adierazten dute, lehenengoen kasuan talde heteroenoak sortzen direla eta adierazpen eta ulermen maila garatzen dutela diote. Beste batek, etorkizunari begira euskara hobeto ulertu eta menperatuko dutela dio. Bereizketa egiten duen ikastetxeak metodoak ikaslearen ama hizkuntza ez den beste hizkuntza bat ikasteko erraztasuna sortzen duela uste du, haien ama hizkuntzatik abiatuta oinarri moduko bat egiten dela beste hizkuntzak hobeto ulertzeko zein menperatzeko.

Alde txarrei dagokionez, ikasleak nahasten dituzten ikastetxeek gaztelaniadunek indar gehiago dutela eta euskaldunek ez dutela hainbeste hobetzen adierazten dute. Eredu desberdinak dituen ikastetxeak alde txarrik ez dituela uste du, euskara txikitatik erabiltzeko joera bultzatu behar dela azpimarratuz. Ikasleak ama hizkuntzaren arabera bereizten dituen ikastetxeak sozializazioa jartzen du alde txartzat, izan ere, umeak ez dira beste gelakoekin elkartzen eskolaz kanpoko ekintzetan ez bada. Hori saihesteko, bi neurri hartzen dituztela adierazten du, lehenengoa hiru gelak nahasteko jolasak prestatzea eta bigarrena 3. mailatik aurrera ikasle guztiak nahastea ama hizkuntzari erreparatu gabe.

	Bai	Ez	Beste batzuk
Araba	2 ikastetxe	Ikastetxe 1	Ikastetxe batek ez daki

**7. Taula:** Arabako 2. galderaren emaitzak (ikus zehatzago 10. eranskinean).

Ikastetxeak erabiltzen duen metodoak emaitzak ematen dituen galdetu denean, ikastetxe batek hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzan metodo zehatzik ez dutela aitortu du. Beste batek, ez dakiela onartu du. Beste bi ikastetxeek baiezkoa eman dute eta batek helburuak lortzen dituela adierazten du nahiz eta gaztelaniadunak ez direla euskaldunen euskara mailara iristen aitortzen duen. Gelditzen den ikastetxeak baiezkoa justifikatzeko, ikasleek eleaniztunak izatea lortzen dutela azpimarratzen du.

Alde onei dagokionez, eskolak bat datoz eta ikasle gaztelaniadunak euskarara hurbiltzen direla esaten dute, horrela, etxetik euskaldunak direnak gaztelaniadunekin euskaraz hitz egiten dute euskara indartzeko. Beste ikastetxe batek etorkizunera begiratzen du eta geroz eta hizkuntza gehiago maneiatu, lan egiteko aukerak handiagoak izango direla azpimarratzen du. Gainera, gainontzeko jendearekin ikasleen ama hizkuntza ez den beste hizkuntza batean harremantzeko aukera sortzen duela gehitzen du.

Alde txarren artean hainbat arrazoi azpimarratu dira. Hasteko, euskara eta gaztelania etxean erabiltzen ez duten ikasleentzat ikasgaien erritmoa jarraitzea zaila dela jaso da. Honez gain, hainbat ikastetxe bat datoz eta etxetik ama hizkuntza euskara dakarten haurrek gaztelania hitz egiten bukatzeko arriskua nabarmentzen dute.

**5. Galdera:** Ama hizkuntza gaztelania dutenek Lehen Hezkuntza amaitzean, euskara ondo menperatzen bukatzen al dute?

	Bai	Ez	Beste batzuk
Gipuzkoa	5 ikastetxe	Ikastetxe 1	Ikastetxe batek ezin dela orokortu dio

**8. Taula:** Gipuzkoako 5. galderaren emaitzak (ikus zehatzago 11. eranskinean).

5. galdera hau komentatzeko, murgiltze programa erabiltzen duten ikastetxeekin hasiko naiz. Batek baiezkoa dio, hala erakusten dutela egindako ebaluazio diagnostikoko emaitzek. Hala ere, beste ikastetxeak orokortu ezin dela dio, denetik ikusi dutelako; izan ere, haien ustez izaera, egoera emozionalak, etxeko bizipenak, jarrerak, motibazioak asko

eragiten dute hizkuntza ikaste-irakaste prozesuan eta hura hasieratik zaintzearen beharra azpimarratzen du: ebaluatu irakaslearen esku-hartzea nolakoa izaten ari da, gelako dinamikan ikusten dena, jardueren etengabeko egokitzapena sortzen diren banakako beharretara, lagun-taldearen egoera eta ikasle hauen txertatzea nolakoa den bere erreferentziako taldean... eta beste hainbat aldagaik eragiten baitute.

Ikastetxe batek ezezkola eman du eta familiaren garrantzia azpimarratzen du, izan ere, ez dutela menperatzen bukatzen gurasoek klasetik kanpo erabilpena bultzatzen ez badute dio. Beste ikastetxe guztiek baiezkoa eman dute, hala ere, gelatik kanpo barneratua ez dutela aitortzen du ikastetxe batek eta gelan nahiko ondo konpondu arren, handik kanpo ez dutela hitz egiten dio. Beste batek baiezkoa eman arren, gela barruan eta irakasleekin euskaraz hitz egiten dutela dio baina hazten diren heinean, geroz eta gutxiago hitz egiten dutela eta geroz eta okerrago. Hau guztia familien inplikazio faltarekin eta herriko giroarekin lotzen du. Orokorrean menperatzen bukatzen dutela adierazten du beste ikastetxe batek baina familiaren laguntza berriro ere azpimarratzen du eta ezinbestekoa dela dio eta familiek oso serio hartu behar duten kontu bat argi uzten du: “ikastolaz kanpoko ahal den eta aukera gehien eskaini behar dizkiete euren seme-alabei euskaraz jardun daitezzen, hizkuntza egoera formaletatik ateraz”.

Azkenik, lehen ikasleak ama hizkuntzaren arabera bereizten zituen ikastetxeak metodo berriarekin ama hizkuntza gaztelania dutenek euskara menperatzen bukatzen dutela eta lehen baino maila politagoarekin bukatzen dutela dio. Hala ere, lehen bereizketa egitean, ikasleak 3. mailara iristean ama hizkuntza euskara eta ama hizkuntza gaztelania zutenen artean alde handia zegoela aitortzen du.

	Bai	Ez	Beste batzuk
Bizkaia	4 ikastetxe	0 ikastetxe	0 ikastetxe

**9. Taula:** Bizkaiko 5. galderaren emaitzak (ikus zehatzago 12. eranskinean).

Bizkaian ikastetxe guztiek ama hizkuntza gaztelania duten ikasleek Lehen Hezkuntzako etapa bukatzean euskara menperatzen bukatzen dutela uste dute. Erantzunen artean, B1 maila lortzen dutela eta DBH-ra maila onarekin iristen direlako ustea dago. Beste eskola batek ikasle batzuei kostatu arren nahiko menperatzen dutela adierazten du.

Bereizketa egiten duen ikastetxeak baiezkoa justifikatzeko, ikasle ohi askok euskaraz lan egiten eta haien bizitzan erabiltzen dutela adierazten du eta banaketaren bidez, ama hizkuntza garatu eta euskara ikasten joaten direla 3. mailara iristean denak nahastu arte.

	Bai	Ez	Beste batzuk
Araba	2 ikastetxe	Ikastetxe 1	1 ikastetxe kasuaren arabera

**10. Taula:** Arabako 5. galderaren emaitzak (ikus zehatzago 13. eranskinean).

Arabaren kasuan, galdera honetan denetik dago. Bi ikastetxeek baiezkoa ematen dute, baten kasuan ikasleak menperatzera heltzen direla baieztatzen du, hau da, ulertzen dutela eta euskaraz komunikatzeko eta ulertzeko gai direla baina ez dutela hitz egiteko ohitura hartzen eta eskolan erabili arren, kostatzen zaiela. Bestearen kasuan, ikasle guztiek euskara menperatzen bukatzea helburuetako bat dela adierazten du.

Ezezko erantzun bat ere badago eta honek guraso gaztelaniadunak dituzten ikasleek euskara ondo ikastea bi alderdiren esku dagoela uste du: eskola eta familia. Izan ere, eskolaren lana alferrik izango da etxean familiak ez badio euskarari garrantzia ematen eta hura bultzatzen; kasu hauetan eta gehiengoaren kasua dela dio, ikasleek euskara ikasi arren, ez dute maila ona lortzen. Hori saihesteko, euskararen irakaskuntza bultzatzeko ekimenak egiten ari direla onartu du eta emaitzak hobetzen ari direla ere, adibidez hurrengo dio: “eskolan euskara indartzeko maskota bat daukagu eta astero errekontu bat egiten da euskaraz nork egin duen edo ez zenbatuz eta honen bidez ikasleek aurrerapen nabarmenak lortu dituzte. Horrekin esan nahi dut euskara ikastea eta bultzatzea ere eskolaren baitan dagoela”.

Galdera honekin bukatzeko, beste ikastetxeak ikasleek euskara menperatzen bukatzea murgiltzearen arabera dela pentsatzen du eta ama hizkuntza ondo menperatzearen garrantzia azpimarratzen du bigarren edo hirugarren hizkuntza bat ikasterako orduan. Ikastetxean ikasleen ama hizkuntza jorratzea ezinbestekotzat jotzen du euskara ondo ikas dezaten.

**6.Galdera:** Alderantziz, ama hizkuntza euskara dutenek Lehen Hezkuntza amaitzean, gaztelania ondo menperatzen bukatzen al dute?

	Bai	Ez	Beste batzuk
Gipuzkoa	5 ikastetxe	Ikastetxe 1	1 ikastetxe ikaslearen arabera

**11. Taula:** Gipuzkoako 6. galderaren emaitzak (ikus zehatzago 14. eranskinean).

Murgiltze programa erabiltzen duten ikastetxeen kasuan, batek baiezkoa dio, hala erakusten dutela egindako ebaluazio diagnostikoko emaitzek, aurreko galderan emandako erantzun berdina. Beste ikastetxeak, ikaslearen arabera dela dio, izan ere, ikasle batzuk gorabehera handirik gabe ondo menperatzen bukatzen dute, eta beste batzuk zailtasun gehiago izaten dituzte (beren bizitzan ohiko hizkuntza ez delako); dena den, orokorrean, ikasle euskaldunek gaztelanian, gaztelania ama-hizkuntza dutenek euskaraz lortzen dutena baino maila hobea lortzen dutela dio.

7. galderan honen zergatia galdetu da, ea eskolaren lanaren fruitua den edo gizartearen eragina den; murgiltze programa erabiltzen duten bi ikastetxeek gizartearen eragina azpimarratu dute, baina familia eta eskolaren lana ere oso garrantzitsua dela diote. Bigarren ikastetxeak, herri euskalduna izan arren, gaztelaniaren presentzia eta gaztelaniazko estimuluak, gero eta handiagoak direla eta honek hizkuntzaren erabilera ohituretan eragiten duela azaltzen du. Beste ikastetxe bat horrekin ados dago eta hurrengo adierazten du: "Gazteleraz, hainbat arau, ikastolan ikasiko dituzte baina estimulu pila dituzte ikastolako eremutik kanpo eta hor ikasten dute komunikatzen".

6. galderara bueltatuz, beste ikastetxeen kasuan, ikastetxe batek ezezkoa eman du eta erabili arren menperatzen bukatzen ez dutela esanez justifikatzen du. Beste ikastetxe guztiek baiezkoa eman dute; batek salbuespenak dauden arren baiezkoa eman du, beste batek maila oso ona lortzen dutela dio, izan ere, Lehen Hezkuntzako 3.mailan hasten dira eta hainbeste input dute gaztelaniaz non ezinezkoa den komunikazio maila ona ez izatea. Beste biek baiezkoa ematen dute eta gainera inongo arazorik gabe egiten dutela diote, herriko giroak lagundu egiten duelako.

Gizartearen eraginaz galdetzean, emaitzek denetik erakusten dute. Ingurune euskaldunean kokatuta dagoen ikastetxeak eremuak ez duela batere laguntzen dio eta ikasleek ikastolaren lanari esker ikasten dutela. Beste eskola batek, bai ikastetxearen eta

gizartearen garrantzia azpimarratzen ditu eta biek batera joan behar dutela, bestela porrota datorrela. Gainera, beste hizkuntza (gaztelania, kasu honetan) infrabalaratzea edo gutxiago erabiltzea, gutxiago irakastea, maila jaistea, etab. soluzioa ez dela aitortzen du. Beste bi ikastetxeek eskolan egindako lanarengatik euskara ikasten dutela diote.

	Bai	Ez	Beste batzuk
Bizkaia	4 ikastetxe	0 ikastetxe	0 ikastetxe

**12. Taula:** Bizkaiko 6. galderaren emaitzak (ikus zehatzago 15. eranskinean).

Kontrako kasuan ere Bizkaian denek baiezkoa eman dute. Bi ikastetxeek gizarteak eragin handia duela adierazten dute eta horrek behartzen dituela gaztelania ondo ikastera. Hurrengo galderari lotua, eskolan lan egiten dela baina gizartearen indarra azpimarratzen dute. Hala ere, euskararen arloan ikastolaren eragin argia azpimarratzen da. Beste ikastetxe batek salbuespenak beti daudela baina ikasleek gaztelaniarekin arazoak izaten ez dituztela aitortzen du eta gizarteak asko laguntzen duen arren, eskolak lan handia egiten duela uste du.

Bereizketa egiten duen ikastetxeak baiezkoa ematen du eta ama hizkuntza menperatzearen garrantzia azpimarratzen du bigarren hizkuntza, kasu honetan gaztelania ikasterako orduan. Hori dela eta, ikasleei beraien ama hizkuntzaren maila igotzen saiatzen dira gerorako beste hizkuntzak ikasten dituzten bitartean erabili ahal izateko. Honen zergatia eskolaren lanaren fruitu edo gizartearen lana izan den galdetu zaionean, eskolaren lana onartzen du baina gizartearen ekarpenak nabariak direla dio. Ildo beretik, hizkuntzen ikaskuntza prozesuan gizartearen eragin positiboa azpimarratzen du hizkuntza bat besteari nabarmentzen bazaio.

	Bai	Ez	Beste batzuk
Araba	4 ikastetxe	0 ikastetxe	0 ikastetxe

**13. Taula:** Arabako 6. galderaren emaitzak (ikus zehatzago 16. eranskinean).

Galdera honi erantzuteko Arabako ikastetxe guztiak baiezkoa eman dute. Bat datozen beste aspektu bat gizartearena da, izan ere, gizartea gaztelaniaduna izateak, hizkuntza garatzen laguntzen duela diote. Ikastetxe batek, EAEko ikastetxe gehienak D ereduak direla kontuan hartuz, ikasleek ama hizkuntza euskara badute, haien ama hizkuntza zeharo ongi landuko dutela adierazten du eta honek gaztelaniaren menperatzea



ekarriko duela, hau da, ama hizkuntza bikain lantzen denez, bigarren hizkuntza ikasterakoan aukera gehiago izango dute bigarren hizkuntza menperatzeko. Beste batek gizartean komunikatzeko gaztelania ikastera behartuta daudela adierazten du.

Gizartearen lana nabarmendu dute baina eskolaren lana ere garrantzitsua dela aitortu dute. Kideekin komunikatzeko ama hizkuntza erabiltzen dutela esaten du batek. Familiaren papera ere azpimarratzen du ikastetxe batek baina eskolak lana egin behar duela. Hala ere, eskola horrek euskarari garrantzia gehiago ematen diotela aitortzen du, gaztelania azken finean gizartean ikasten dutelako.

Beste ikastetxe batek ingurua azpimarratzen du eta kontuan hartu beharreko faktore bat dela dio eta hurrengo adibidea jartzen du: “Gaztelania ama hizkuntza duen ikasle bat Goierri inguruan bizi bada, eskolan zein gizartetik euskara jasoko du eta honek eskolatik jasotzen duen hizkuntzari errefortzua egingo dio, nahiz eta etxean gaztelaniaz aritu. Kontrako kasuan berdin pasatzen da, euskara ama hizkuntza duen ikasle bat hemen Gasteizen bizi bada, gaztelania eskolatik jasoko du baina hein handi batean gizartetik eta honek eskolaren errefortzu gisa erabili ahalko du”.

**8.Galdera:** Ikasleek bi hizkuntzetan, ahoz, entzumenez, idatziz eta irakurritz maila bera lortzen al dute?

	Bai	Ez	Beste batzuk
Gipuzkoa	3 ikastetxe	3 ikastetxe	Batek ia ia baietz baino ezetz dio

**14. Taula:** Gipuzkoako 8. galderaren emaitzak (ikus zehatzago 17. eranskinean).

Murgiltze programa erabiltzen duten ikastetxeak kontuan hartuz gero, bietako batek ikasleek ez dutela maila bera lortzen adierazten du, izan ere euskaraz maila hobea lortzen dutela aipatzen du. Beste ikastetxean, ezezkoa eman arren, normalean paretsu ibiltzen direla aitortzen du.

Beste ikastetxe guztiek baiezkoa eman dute batek izan ezik, eta normalean ama hizkuntza hobeto menperatzen dutela argudiatzen dute. Baiezko erantzunen artean, gaztelaniako hainbat kontu ortografia mailan ez dituztela menperatzen azpimarratzekoa da, beste arlo guztietan ordea bai. Horrez gain, nahiz eta ama hizkuntza gehien kasuan gaztelania izan, hizkuntzako arlo guztiak berdin menperatzen dituztela azaltzen du beste ikastetxe batek.

	Bai	Ez	Beste batzuk
Bizkaia	1 ikastetxe	3 ikastetxe	0 ikastetxe

**15. Taula:** Bizkaiko 8. galderaren emaitzak (ikus zehatzago 18. eranskinean).

Emaitzek hiru ikastetxeek ezezkoa eman dutela adierazten dute, hauen artean, ikastetxe batek euskarazko ahozkoan gaztelaniazkoan baina maila hobea lortzen dutela dio eta besteak ikasleek ahozkoan eta idazmeneko ortografia arazoak izaten dituztela. Bereizketa egiten duen ikastetxeak baiezkoa eman du eta egindako test-en bidez lorturiko emaitzetan oinarritzen da hori justifikatzeko.

	Bai	Ez	Beste batzuk
Araba	1 ikastetxe	3 ikastetxe	0 ikastetxe

**16. Taula:** Arabako 8. galderaren emaitzak (ikus zehatzago 19. eranskinean).

Araban, Bizkaian bezala, galdera honi erantzuteko ezezkoa eman dute. Hauen artean, ikasle guztiek maila berdina lortzen ez dutela baina hala beharko lukeela adierazten dute. Beste erantzun bat, azken urteetan maila parekatzen ari delako ustea da baina oraindik gaztelania maila euskara maila baino altuagoa dela pentsatzen du. Baiezko erantzuna eman duen ikastetxeak pareko maila batean kokatzen ditu ikasle guztiak baina beti ere, ama hizkuntza ondo jorratzen bada ondoren beste hizkuntzak errazago ikas ditzaten.

**9. Galdera:** Jatorri atzerritarreko ikasleek hemengo bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) ikasteko tratamendu bereziren bat jasotzen al dute? Baiezko kasuan, laburbildu.

	Bai	Ez	Beste batzuk
Gipuzkoa	5 ikastetxe	2 ikastetxe	0 ikastetxe

**17. Taula:** Gipuzkoako 9. galderaren emaitzak (ikus zehatzago 20. eranskinean).

Murgiltze programaz baliatzen diren ikastetxeekin hasiz, ikastetxe batek ordutegi barruan eta kanpoan hizkuntza errefortzuak jasotzen dituztela adierazten du eta eskolako udaleku zerbitzua eskaintzen diete euskaraz trebatzen jarrai dezaten, nahiz eta hau ez den etorkinentzat soilik bideratua egongo. Beste eskolak, hemengoa izan nahiz etorkina izan tratamendu berdina jasotzen dutela dio (murgiltze programa). Era berean, udalarekin eta

herriko euskaltegiarekin harremanetan daudela dio, eskola kanpoko ekintzen bidez inklusiorako aukera izan dezaten eta hizkuntzen erabileran trebatu daitezen.

Beste ikastetxeen erantzunen artean, ikastetxe batek irakaskuntza ikaslearen zailtasunen arabera pertsonalizatzen dutela dio. Izan ere, jatorri atzerritarreko haurrek kasu askotan ez dute arazorik izaten, horregatik, familien maila soziokulturalak eta hizkuntzekiko duten jarreraren garrantzia azpimarratzen du. Beste bi ikastetxek baiezkoa ematen dute eta errefortzu gela eta HIPI gelak baliabidetzat erabiltzen dituztela diote. Beste bik ordea, inolako tratamendu berezirik ez dutela jasotzen diote, hura arrazoitu gabe.

	Bai	Ez	Beste batzuk
Bizkaia	4 ikastetxe	0 ikastetxe	0 ikastetxe

**18. Taula:** Bizkaiko 9. galderaren emaitzak (ikus zehatzago 21. eranskinean).

Galdera honi erantzuna emateko lau ikastetxeak berriro ere bat datoz eta baiezkoa eman dute. Ikastetxe batek prozesu desberdinak jarraitzen dituztela aipatzen du. Beste batek, hizkuntza indartzeko klaseak jasotzen dituztela esaten du, PT edo laguntza hezitzaileen bitartez jasotzen dutela hizkuntza. Horrez gain udaletxeak ere haur etorri berriei euskara ikasteko klaseak eskaintzen dizkio. Beste ikastetxe batek eskola orduetan eta eskolako orduetatik kanpo errefortzua izaten dutela azpimarratzen du eta “berbaro” jartzen du adibidetzat. Bukatzeko, azken eskolak ikasleek hemengo bi hizkuntzak ezagutzen ez badituzte irakasle laguntzailea jartzen dietela adierazten du eta gainera, ikasle etorkinek hizkuntzak ikasteko duten erraztasuna azpimarratzen du, izan ere, askok gutxienez beste bi hizkuntza menperatzen dituztelako.

	Bai	Ez	Beste batzuk
Araba	2 ikastetxe	1 ikastetxe	1 kasuaren arabera

**19. Taula:** Arabako 9. galderaren emaitzak (ikus zehatzago 22. eranskinean)

Ikastetxe batek ezezkoa ematen du baina ez du tratamendua azaltzen. Beste batek, kasuaren arabera egiten dutela azaltzen du, izan ere, txikitatik eskolan badaude tratamendu berezirik jasotzen ez dutela esaten du, baina Lehen Hezkuntzan iristen badira ikasgelatik ateratzen dituzte batez ere hiztegia ikasteko eta komunikatzeko gai izateko.

Beste bi ikastetxeek, berriz, baiezkoa ematen dute; batek haurra matrikulatuta hizkuntza indartzen dela dio eta horretarako, batzuetan bakarka egiten duela lan adierazten

du, piktogramak edo teknologia bezalako baliabideak erabiliz hiztegia ikasteko. Beste eskolak, aldiz, haurrek ingelesa badakite, ikasgelan ingelesa dakien irakasle laguntzaile bat jartzen dietela adierazten du baina euskara, gaztelania eta ingelesa ez baditu hitz egiten ordu batzuetan ikasgelatik ateratzen dituztela. Hala ere, haur etorkin askok gaztelania dakitela aitortzen du eta horrela haien murgiltzea errazagoa izaten dela dio.

**10. Galdera:** Atzerritarrak herrialde ezberdinetakoak izan daitezkeela kontuan harturik, hizkuntzen irakaskuntzan tratamendu berdina egiten zaio, adibidez, Kolonbiatik etorri den eta gaztelania dakien ikasle bati edo Errumaniatik etorritako eta gaztelania ez dakien ikasle bati?

	Bai	Ez	Beste batzuk
Gipuzkoa	4 ikastetxe	2 ikastetxe	Batek atzerritarrik ez

**20. Taula:** Gipuzkoako 10. galderaren emaitzak (ikus zehatzago 23. eranskinean).

Kasu hipotetiko honen inguruan galdetzean, murgiltze programa jarraitzen duen ikastetxe batek hizkuntzen irakaskuntzan ikasleei antzeko tratamendua egiten zaiola baieztatzen du. Bestek, aldiz, oinarriko printzipioak bigarren edota hirugarren hizkuntzaren irakaskuntza-ikaskuntza berdina egiten dela eta modu berean erantzungo liekete bi kasu hipotetiko hauei erantzuten dute. Haez gain, gaztelania ez dakitenean kasuan gaztelania ama hizkuntza dutenekin alderatuz, normalean euskararen nahiz gaztelaniaren irakaskuntzara errazago hurbiltzen direla onartzen du.

Beste bost ikastetxeen artean, baiezeko nahiz ezezeko kasuak aurki daitezke. Baiezekoen kasuan, ikasle hauek euskararekiko tratamendu berdina jarraitzen dutela diote. Kolonbiatik datorren nahiz Errumaniatik etorri hizkuntza erromanikoak dituztela eta tratamendu berdina egingo lieketela adierazten du ikastetxe batek. Izan ere, erraztasun edo zailtasunak berdintsuak izango dira. Hala ere, etorkin hauek txinatar edo arabiarrek izango balira tratamendua erabat ezberdina izango litzatekeela dio, hizkuntza hauek ez direlako erromanikoak. Amaitzeko, eskola batek atzerritarrak ez dituela esaten du eta jasotako ikasle guztiek euskara edo gaztelania dutela ama hizkuntzatzat.

	Bai	Ez	Beste batzuk
Bizkaia	2 ikastetxe	2 ikastetxe	0 ikastetxe

**21. Taula:** Bizkaiko 10. galderaren emaitzak (ikus zehatzago 24. eranskinean).

Bi ikastetxeek baiezkoa eta batek ezezkoa ematen dute baina ez dute arrazoirik ematen. Azkenak, bereizketa egiten duen eskolak tratamendu ezberdina emango litzaiekeela dio Kolonbiatik etorri dena gaztelaniadunen ikasgelan sartuko luketen eta bikain moldatuko litzateke bere ama hizkuntza berdina duten ikasleekin eta Errumaniakoak irakasle laguntzailea izango luke.

	Bai	Ez	Beste batzuk
Araba	Ikastetxe 1	Ikastetxe 1	Batek premiaren araberakoa eta beste batek ideiarik ez dutela diote

**22. Taula:** Arabako 10. galderaren emaitzak (ikus zehatzago 25. eranskinean).

Galdera hau Arabarekin itxiz, ikastetxe bakoitzak erantzun bat ematen du. 1. ikastetxeak ideiarik ez duela aitortzen du eta 4. ikastetxeak baiezkoa ematen du baina ez du arrazoirik partekatzen. Beste ikastetxe batek, ikaslearen premiaren arabera egiten dutela adierazten du, kasu honetan Errumaniatik etorri den ikasleari ordu gehiago eskainiko litzaioke ez baitu bertako bi hizkuntza ofizialen ezagutza. Bukatzeko, beste batek ezezkoa ematen du eta irakasle laguntzaile jartzen dietela aipatzen du, hala ere, gaztelania badakite, euskara ikas dezaten irakasleek moldaketak egin dituztela adierazten du.

**11. Galdera:** Ignasi Vilak atzerritarren hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzan parte hartu beharko luketeen lau faktore aurkezten ditu. 1-5-era puntuatuz, esan zein puntura arte eskolan kontuan hartzen diren (1 oso gutxi eta 5 sakontasunez).

a) Irakasleek haurrak duen ama hizkuntzaren maila zein den ondo ezagutzea. Zazpi ikastetxeak kontuan hartuz gero, batazbestekoa 4 da. Bizkaiaren kasuan, batazbestekoa 4,25 da. Araban, berriz, 4 da.

b) Umeek zer eskolatze maila daukaten, irakurtzen edo idazten badakiten. Gipuzkoan batazbestekoa 4,42 da, Bizkaian 4,4 eta Araban 4,75.

d) Zer nolako jarrera duten hizkuntzekiko. Gipuzkoan batazbestekoa 4,28 da, Bizkaian 3,75 eta Araban 3,25.

e) Familiaren hezkuntza maila zein den eta zer itxaropen dituzten eskolarekiko. Batazbestekoa 4.14 da Gipuzkoan, Bizkaian 3,75 eta Araban 3.

## **6. ONDORIOAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK**

Aurretik hipotesi batzuk ezarri dira eta horiek egiaztatzeko 15 ikastetxeen emaitzak kontuan hartu behar dira ondorio nagusiak ateratzeko orduan. Hurrengo paragrafoetan hipotesiak bete diren aztertuko da eta detektatutako arazoari erantzuna emango zaio hobekuntza proposamen bat eginez.

Hasteko, lehenengo hipotesian haurrak geletan banatzeko ama hizkuntza kontuan hartzen dela esan da. Emaitzak begiratzuz gero, 1. galderara jo behar dugu. Ikastetxe gehienek ezezkoa eman dute, beraz, egindako hipotesia okerra dela baieztatzen da. Hipotesia formulatzerako orduan, nik txikitan bizi izandako gertaeran eta marko teorikoan aipaturiko programetan oinarritu naiz. Hala ere, ikastetxe batzuek ama hizkuntzaren arabera ikasleak bereizten ez dituzten arren, banaketa egiteko eta oreka bilatzeko faktore bat dela aitortu dute.

Ikasleak ama hizkuntzaren arabera bereiztearen kasuan, segregazioa ondorio bat dela ikus edota antzeman daiteke, izan ere, haurrak ama hizkuntzaren arabera bananduak izaten dira eta honek segregazioa dakar eta ikasle batzuk beste batzuekin harremanetan jartzeko zailtasuna ere. Honetaz aparte, emaitzek erakusten duten moduan, sozializazioan ere eragina dauka, hau da, ikasleak beste batzuekin harremantzeko zailtasuna edo ez harremantzea ekarriko du. Gainera, D ereduak bakarrik euskaraz ikasten denez, irakasgai espezifikoak kenduta, euskara edo euskal kultura ez dena baztertuta izan daiteke eta horrekin kontu handiz jokatu behar da, izan ere, ikasleak kritikoki hazi behar dira haien ideia propioak eraiki ditzaten.

Ikasleak ama hizkuntzaren arabera banatzeak segregazioa sortzen duela esan da. Beste ikastetxe batzuek ikaslearen ama hizkuntza oreka bat bilatzeko kontuan hartzen dutela adierazi dute. Kasu hau argi dago bereizketa egitea baina hobea dela baina bi hizkuntzen trataera egin beharko lirakekeela argi dago, izan ere, haurrek Haur Hezkuntzan oraindik ez dituzte hizkuntza guztietan berdinak diren sakoneko gaitasunak lortzen haien lehenengo ama hizkuntzan eta bigarren hizkuntza bat ikastea hauek finkatuta egon gabe haurrengan gatazka kognitiboak sor ditzake. Gaur egungo ereduak bakarrik euskara lantzen du eta eskola batek adierazi duen moduan, gaztelania ikasgai bezala lantzen hasten dira Lehen Hezkuntzako 1. mailan. Horregatik, ikasgeletan oreka lortzearen kontua ondo dagoela deritzot, baina oreka hori hizkuntzen trataeran ere kontuan hartzen bada.

D ereduko kasuetan, ama hizkuntza gaztelania duenentzat bere hizkuntza eskolan diskriminatua dela pentsatuko du, izan ere, erabiltzen duenean euskaraz aritzeko aginduko diote, gainera, errieta botaz. Horrelako kasuetan Bilbaok (1998) azaltzen duen elebitasun kentzailea gertatzen da eta berak adierazten duen moduan, ikaslea eskolako hizkuntza ikastera behartuta sentituko da eta ama hizkuntzaren eta bigarren hizkuntzaren barne gatazkak izango ditu. Bere hitzekin jarraituz, horren emaitza ez da benetako elebitasuna, batek besteari balioa kentzen diolako.

Bigarren eta hirugarren hipotesiak bat datoz eta ikasleen ama hizkuntzari eta bigarren hizkuntzari egiten die erreferentzia. Horretarako, 5. eta 6. galderak hartu dira aintzat eta ikasleen ama hizkuntza ez den hizkuntza menperatzera ailegatu diren edo ez egiaztatzea du helburu. Ama hizkuntza gaztelania dutenek euskara menperatzera iristen diren ala ez galdetu denean, gehiengoak baiezkoa eman du, horregatik egindako hipotesia okerra dela ondorioztatzen da. Hala ere, ezezko kasuak eta ezin dela orokortu eta ikerketa kasuaren araberakoa izan beharko litzakeela jaso dira, beraz, hipotesia okerra izan arren, ez da errealitatearen oso urrun geratu eta ikastetxe askotan horrela dela frogatu da.

Ondorio bezala esan, etxetik gaztelaniadunak direnak euskara ez ikastea zaila dela, izan ere, D eredu horretarako diseinatua dago gehienbat, euskararen irakaskuntzarako eta beste hizkuntzak baztertu egiten ditu. Curriculumean (236/2015) helburua elebitasuna lortzea dela jartzean duen arren, hurrengo adierazten du: “helburu hori betetzeko, euskara erabiltzen eta ikasten lagundu behar du ikastetxeak, eta, era berean, haren normalizazioa bultzatu behar du, gizartean duen presentzia txikiagoa konpentsatzeko”. Kasu hauetan, euskarari gaztelaniari baina tratamendu sakonagoa ematen bazaio, eskolako hizkuntzak etxekoari kenduko dio nahiz eta gizartean hitz egiten dena etxekoa den.

Hariarekin jarraituz, lehen urteetan arrazoi gehiagorekin, etxeko hizkuntza eskolan lantzearen garrantzia azpimarratzekoa da, etxean ikasten dena eskolan jarraipena izan dezan eta alderantziz. Argi dago eskolak euskararen irakaskuntzarako lan handia egiten duela eta familiek euskara jakin ez arren, ikastetxeei lagundu beharko liekete. Horrela, elebidun orekatuak sortuko lirateke eta ikasleen motibazioa handiagoa izango litzateke ikasgelan ikusitakoak etxean jarraipena badu.

Kontrako kasuan, ama hizkuntza euskara dutenek gaztelania menperatzera ailegatu diren hipotesiak baiezkoa zioen eta erantzunek hori jaso dute, izan ere, ikastetxe gehienek

baiezkoa eman dute kasu honengatik galdetu denean. Horregatik, hipotesia zuzena dela ondorioztatzen da.

Hipotesi honetan, ondorio bezala bi nagusi daude. Lehenengoa, ama hizkuntza euskara duten ikasleak ama hizkuntza gaztelania duten ikasleekin nahastean euskara galtzen dutelako ustea dagoela edo behintzat lortu ahal luketen maila baino maila baxuagoa lortzen dutela. Bigarrena, gaztelania eskolan soilik ikasgai moduan lantzen dela eta gizartean duen nagusitasunarengatik menperatzen bukatzen dutela. Kasu honetan, elebitasun gehitzailea nahiz kentzailea jasaten dute, izan ere, etxeko hizkuntza eskolan baloratua dena da eta hitz egiteko aukera du baina gizartean hizkuntza hori gutxitua dena da komunikatzeko hizkuntza ikasteko beharra sentitzen dute. Horregatik, etxetik ama hizkuntza duten ikasle askok gaztelaniara jotzen dutela ikusi da.

Ildo beretik, 4. hipotesia 3.arekin guztiz lotuta doa zeren eta ama hizkuntza euskara duten ikasleek gaztelania menperatzearen arrazoa gizartearen eragina dela baieztatu da. Horretarako, 7. galderan jasotako erantzunetan jarri behar da enfasia eta ikastetxe gehienek gizartearen garrantzia azpimarratu dute etxetik euskaldunak direnak gaztelania ikasterako orduan. Hala ere, eskolak betetzen duen papera ere azpimarratu dute eta askok batera joan behar dutela diote. Marko teorikoan esan den moduan, EAEn boterea duen hizkuntza eta gizartean ikasten dena gaztelania da eta euskara hizkuntza gutxitua izango litzateke nahiz eta eskolan irakaskuntzaren ardatz izan.

7. galderaren ondorioei dagokionez, ikus daiteke gizartean normalean gaztelania gailentzen dela eta honek euskara ama hizkuntza bezala duten ikasleek beraien hizkuntza gizartean hitz egiteko aukerak murriztu egiten dituela. Horregatik, inguruaren garrantzia azpimarratu behar da, izan ere, inguru euskaldun batean bizi den eta ama hizkuntza euskara duen ikasle bat D ereduako eskola batean matrikulatuta baldin badago, nekez ikasiko du gaztelania gizartean erabiltzeko aukerarik ez badu eta motibaziorik ez badu. Kasu horretan, eskolaren gain egongo litzateke ume horrek gaztelania ikastea eta D ereduarekin eskolaren lanaren fruitu bezala ez luke inoiz elebidun orekatu bat lortuko. Horregatik, hizkuntzen oreka lortzearen garrantzia azpimarratzen dut berriz ere.

Ikasleen ama hizkuntza alde batera utziz, 8. galderan ikasleek bi hizkuntzan, hau da, euskaran eta gaztelania idatziz, ahoz, entzumenez eta irakurmenean maila berdina duten galdetu da eta emaitzek ezetz erakutsi dute. Hipotesiak ere ezezkoa zioen, beraz, hipotesia



zuzena dela baieztatzen da. Hala ere, ezezkoak gehiengoaren diren arren, baiezkoren presentzia anitza dela esan daiteke.

Galdera honetatik atera daitekeen ondorioak nabarmenena ikastetxeen arabera eta orokortu ezin dela da, hau da, ikastetxe batzuetan ama hizkuntza maila hobetzen dute ikasleek eta baita bigarren hizkuntzan ere. Ikastetxe batzuen kasuan hau ez dute lortzen, beraz, elebidun orekatuak sortzearen helburura iristen ez direla ondorioztatzen da. Hau guztia irakaskuntzaren ardatz soilik euskara izategatik gertatzen dela uste dut eta ez dela betetzen curriculumak (236/2015) esaten duen ikasleek bi hizkuntza ofizialak ongi jakin ditzaten bermatzea. Horretarako, bi hizkuntzetan enfasia jarri beharko litzateke. Beste ondorio bat, D eremuan euskara soilik lantzen denez, gaztelaniazko idazmenean eta ortografian arazoak sortzen direla da eta hori ekiditeko, EAEko hezkuntza sisteman gaztelania leku gehiago izan behar luke eta euskararekin batera joan.

Azken hipotesian hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzan atzeritarrei egindako tratamendua hartu da kontuan eta tratamendu hori berezia dela baieztatzen du hipotesiak. Hipotesia zuzena den egiaztatzeko orduan, 9. galderari erreparatu behar zaio eta taulek ikustarazten duten moduan, gehiengoak baiezkoa eman du, orduan hipotesia zuzena dela baieztatzen da.

Ikasle etorkinen kasuan, ondorio garbi bat atera daiteke eta eskolek oraindik marko teorikoan azaldutako modelo tradizionala jarraitzen dutela da. Izan ere, hainbat ikastetxeek ikasgelatik ateratzen dituztela eta tratamendu individualizatua jarraitzen dutela aitortu dute. Harrigarria den beste aspektu bat 15 ikastetxetatik bakarrak erabili duela "inklusioa" hitza izan da. Eskoletan dagoen aniztasuna aprobetxatzeko zerbait behar luke eta ikasle etorkinak haien ikaskideengandik urruntzen badira, ez da inklusioa inoiz lortuko. Horregatik, irakasleek ikuskera aldatu behar dute eta aniztasuna indargunetzat hartu adibidez, Coelho (2016) adierazten duen moduan, beste kultura batzuk ezagutzeko.

Hala ere, aurrerapausoak eman direla nabarmena da; hainbat eskolek ekimenak prestatzen dituzte ikasle etorkinen inklusioa errazagoa izan dadin baina gehienak eskolaz kanpokoak dira. Horrez gain, eskolek udaletxearekin kontaktua mantentzen dute eta udaletxeak euskaltegiak errazten dizkie ikasleei eta haien familiei.

Laburbilduz, lana egin den arren oraindik lan asko egiteko dago Bernausek (2004) proposatzen duen modelo berriaren oinarriak finkatzeko orduan. Horretarako, irakasleek hizkuntzaren trataerari buruz gehiago jantzi behar direla deritzot, izan ere, galdetegian

jasotako erantzun askotan ezagutza falta sumatzen da eta beste batzuetan ez dute ezta erantzun edo arrazoirik eman, beraz, modelo tradizionala atzean uzteko irakasleak gai honen inguruan gehiago informatzea eta hau ezagutzea beharrezkotzat jotzen dut.

Hobekuntza proposamenekin hasiz, marko teorikoan EAEn gehien ematen den hizkuntza eredua D eredua dela esan da. Galdetegian jasotako emaitzek argi eta garbi utzi dute hizkuntzen irakaskuntzan hainbat helburu betetzen ez direla, hala nola bi hizkuntzak menperatzera iristea, bietan maila antzekoa lortzea, elebitasuna bermatzea, atzerriko hizkuntzak jakitea, etab. Hori, eskola bakoitzak erabiltzen duen programa edo metodoaren ondorioz izan daiteke, edo gehiago erabiltzen den ereduarengatik, D eredua, izan ere, galdetegia bete duten guztiok eredu hau jarraitzen dute. Beraz, galdetegiaren bidez identifikaturiko arazoa D eredua da.

Eredu honetan, irakaskuntza-ikaskuntza prozesu osoa euskaraz izaten da eta beste hizkuntzak (gaztelania eta ingelesa) ikasgai bezala jorratzen dira eta bakoitzari astean hiru edo lau ordu eskaintzen zaie. Indarrean dagoen curriculumak (236/2015) hurrengoa jasotzen du:

“Euskal Autonomia Erkidegoan, eskolaren lehentasunezko helburua da ikasleek bi hizkuntza ofizialak ongi jakin ditzaten bermatzea... Hizkuntza ofizialak menderatzeaz gain, atzerriko hizkuntzak jakin behar dira, pertsonak elkar ezagutzeko, ideiak trukatzeko eta kulturen elkar ulertzea errazteko. Elebitasuna bermatzea da hezkuntza-sistemaren erronketako bat, baina, horrez gain, pertsona eleaniztunak hezi behar ditu, gutxienez atzerriko hizkuntza bat taxuz dakitenak”.

Curriculumak jasotzen duena kontuan hartuz eta bertako eskolek jarraitu behar dutena dela kontuan hartuz, D ereduak hori betetzen al du? Nire ustez ez; D ereduak euskara bultzatzen du baina beste hizkuntzei ez die tratamendu berdina ematen legean hori jartzen duen arren. Modu batean edo bestean hizkuntza hauek baztertu egiten dira. Emaitzetan argi geratu da, izan ere, bi hizkuntza ofizialetan ikasleek ez dute maila berdina lortzen (ahoz, entzumenez, idatziz eta irakurketari dagokionez) nahiz eta curriculumean hori adierazita dagoen eta ikastetxeek hori helburuetako bat dela aitortzen duten arren.

D ereduan euskara, gaztelania eta ingelesa ez doaz eskutik eta bakoitzak bere bidea darama. Horrek, marko teorikoan azaldutako Cummins-en transferentziaren fenomenoak zaildu egiten du, ez baitira elkarren arteko loturarik egiten. Ruiz Bikandik eta Tusonek (2008) adierazten duen moduan, irakasleek ikasleek beste hizkuntza batzuk ezagutuko ez

balituzkete bezala jokatzeko dute, gutxitan bidaltzen dira lanak A hizkuntzan gero B hizkuntzan egiteko. Horregatik eta hizkuntzen arteko lotura faltarengatik, ikasleek ikasten ari diren hizkuntzak buruan dituzte eta eduki batzuk ondo transferitzea lortzen dituzte baino beste batzuk ez dituzte transferitzen edo gaizki egiten dute.

Marko teorikoan adierazi den bezala, D ereduak elebakarra bezala definitu daiteke, hizkuntza bakar bat ikastea bilatzen baitu eta beste hizkuntzak ikasgai bezala jorrotzen dira. Hori gainditzeko, nire proposamena hizkuntzen tratamendu integratua da, gaur egungo curriculumean lekua duena (“Orobat, hizkuntzen tratamendu integratua sustatu behar dute irakasleek”) baina gero errealitatean, ikerketak frogatu duen moduan, erabiltzen ez dena.

Hizkuntzen tratamendu integratuaz hitz egitean, Noguerolek (2008) definitzen duen moduan, hizkuntza bat dominatzea, bere formak “ezagutzea” baina haratago joatea da; hau da, hizkuntza komunikatzeko eta elkarri eragiteko erabiltzen jakitean datza, hizkuntza eta bere bariazioak parte hartzen ari den testuinguru komunikatibo anitzetara egokituz. Horrela, errazagoa izango da marko teorikoan azaldutako Cummins-en Elkarmenpekotasunaren Teoria gertatzea.

Bere helburuak, Noguerolek (2008) esaten duen gisara, baterako programazio baten bidez koordinazio maila minimoa lortzea eta ikastetxean irakasten diren hizkuntza irakasle guztiak inplikatzeko dira, haien adostasuna lortuz irakaskuntza eta ebaluazioaren helburuei, edukiei, metodologiei eta prozedurei dagokionez.

Ildo beretik, Noguerolek (2008) gehitzen duen bezala, eskolako agente guztiak inplikatzeko dituen programazioaz gain, hizkuntzen tratamendu integratuak familia bereko hizkuntzen ulermena bultzatzeko jarduerak burutzea eskatzen du, eta horrek, helburuak integratzea eta estrategien eta beste ezagutza batzuen transferentzia gertatzea dakar. Eraitzetan argi geratu da ikastetxeek ez diotela honi garrantzia ematen, soilik eskola bateko familia bereko hizkuntzak badira tratamendu berdina ematen dietela aitortu du. Orduan, ezjakintasuna dagoela agerikoa dirudi eta horregatik hizkuntzen tratamendu integratua bultzatzea egokiago litzateke.

Indarrean dagoen hezkuntza curriculumak, hurrengoa dio:

“Hizkuntza jakin bat erabiltzea lagungarri da norberaren nortasuna eraikitzeko, eta erabilera horrek bide ematen du nortasun linguistiko eta kultural kolektiboan parte hartzeko. Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia egoki garatu behar

da arduraz parte hartzeko gaur egungo euskal gizartean eta mundu globalizatuan. Ingurune eleaniztunetan aritzea lagungarri da ekitate eta enpatiako jarrera asertiboak garatzeko”.

Hizkuntzen tratamendu integratuak hori kontuan hartzen du eta Noguerolek (2008) adierazten duen bezala, kompetentzia honek ikasleriaren hizkuntzak ikasgelan presente egotea eskatzen du, ingurukoak, minorizatuak eta baita urrunagoak eta ezezagunagoak diren beste batzuk ere, hizkuntza hauetatik eta hauek hitz egiten dituzten pertsonengandik ikasteko.

Bukatzeko, marko teorikoan esan den bezala, gizartea eraldatzen ari den bitartean hezkuntzak ere eraldatu behar luke eta gizartearen ezaugarriak erabili berriak diren metodoak erabiltzeko. Horregatik, ditugun tresnei ahalik eta etekin gehien atera behar diegu eta horretarako, Bernausek (2004) proposatzen duen modelo berriaren oinarriak (ikus 1. taula) kontuan hartuz eta ikastetxeetan hizkuntzen tratamendu integratua ezarri.

D ereduak beste ereduak baina emaitza hobeak ematen dituela eta ikastetxeak horrekin gustura daudela eta aldaketak egitea kostatzen zaiela ezagun da, baina batzuetan aldaketak beharrezkoak dira. Modelo berriak eta hizkuntzen tratamendu integratuak eskolako pertsona guztiak hartzen ditu kontuan eta inklusiorako bide dira.

## **7. ERREFERENTZIAK**

- Baker, C. (1997), *Fundamentos de Educación Bilingüe y Bilingüismo*. Madril, Cátedra.
- Barquin, A. (2009). "Etorkinen seme-alabak eskolan. Zer aldatzen ari da?" *Hik hasi* 143, 29-32.
- Barquin, A. eta Ruiz Bikandi, U. (2009). "Hizkuntzen kudeaketa eskolan", *Tantak*, 21, 7-21 orr.
- Bernaus, M. (2004). "Un nuevo paradigma en la didáctica de las lenguas" *Revista electrónica Glosas Didácticas*, 11, 3-13.
- Besalú, X. eta Vila, I. (2007). *La buena educación. Libertad e igualdad en la escuela del siglo XXI*. Madril: Catarata.
- Bilbao, X. (1998). *Hezkuntza elebiduna. Zenbait oinarri*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea eta Arabako Foru Aldundia, 49-66.
- Coelho, E. (2016). *Eskola kulturaliztunetan irakastea eta ikastea*. Bilbo: UPV/EHU.
- Cummins, J. (1979/1983), "Linguistic Interdependence and the Educational Development of Bilingual Children", *Review of Educational Research*, 49. 222-251. [Gaztelaniazko itzulpena] (1983), "Interdependencia lingüística y desarrollo educativo de los niños bilingües", *Infancia y aprendizaje*, 21, 37-61.
- Cummins, J. (2000), *Language, Power and Pedagogy. Bilingual Children in the Crossfire*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Dolz, J. eta Idiazabal, I. (2013). *Enseñar (lenguas) en contextos multilingües*. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea - UPV/EHU.
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Berezia. (2015). *Etorkin atzeritarrei buruzko inkesta 2014*. [http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/informe\\_epie\\_2014/eu\\_epds2012/ad\\_juntos/2014ko\\_EABI-ren\\_txostena-eu.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/informe_epie_2014/eu_epds2012/ad_juntos/2014ko_EABI-ren_txostena-eu.pdf) -tik berreskuratuta.
- Etxebarria, M. (2013) "Lenguas en contacto y enseñanza bilingüe en el País Vasco". In Dolz & Idiazabal (arg.) *Enseñar (lenguas) en contextos multilingües*. Bilbo: UPV/EHU. 89-114.

Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila (2016). 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea. [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri\\_2020/eu\\_2\\_proyec/adjuntos/OH\\_curriculum\\_osa.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/adjuntos/OH_curriculum_osa.pdf)

Eusko Jaurlaritza. (2018). Atzerritar jatorriko eskolatzea EAeko eskola-sisteman. Diagnostikoa eta esku hartzeko neurri berriak. Berreskuratuta: [https://bideoak2.euskadi.eus/2018/11/05/news\\_49605/Atzerritar\\_jatorriko\\_ikasleen\\_eskolatzea\\_EAeko\\_eskola\\_sisteman.pdf](https://bideoak2.euskadi.eus/2018/11/05/news_49605/Atzerritar_jatorriko_ikasleen_eskolatzea_EAeko_eskola_sisteman.pdf) -tik.

EUSTAT. (2016). Euskal AEko biztanleria, lurralde-eremuaren, ama-hizkuntzaren eta etxean hitz egiten den hizkuntzaren arabera. Berreskuratuta [http://eu.eustat.eus/elementos/ele0014700/Euskal\\_AEko\\_biztanleria\\_lurralde-eremuaren\\_ama-hizkuntzaren\\_eta\\_etxean\\_hitz\\_egiten\\_den\\_hizkuntzaren\\_arabera/tbl0014754\\_e.html](http://eu.eustat.eus/elementos/ele0014700/Euskal_AEko_biztanleria_lurralde-eremuaren_ama-hizkuntzaren_eta_etxean_hitz_egiten_den_hizkuntzaren_arabera/tbl0014754_e.html) -tik.

Expansión. (2017). *Sube el número de inmigrantes que viven en España*. Datosmacro.com: inmigración en España. <https://datosmacro.expansion.com/demografia/migracion/inmigracion/espana> -tik berreskuratuta.

Grosjean, F. (1985), «*The Bilingual as a Competent but Specific Speaker-Hearer*», *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 6 (6), 467-477.

Idiazabal, I. & Manterola, I. (2009). Euskal eredu elebidunak, murgilketa eta hizkuntzen irakaskuntza integratua: kontzeptuen berrikusketa. *Euskera*, 54, 2-1. 463-504.

Lasagabaster, D. eta Sierra, J.M. (eds.) (2005). *Multilingüismo y multiculturalismo en la escuela*. Bartzelona: Horsori.

Manterola, I. (2010) *Euskarazko murgilketa Haur Hezkuntzan: euskara-gaztelania elebitasunaren azterketa. Ahozko ipuinen analisi diskurtsiboa eta didaktikoa*. EHU/UPV. Vitoria-Gasteiz: Europako doktorego tesia.

Manterola, I. (2014). "Bilingual education searching for promising didactic proposals". *Frontiers in psychology*. 5.

Manterola, I. (2015). "Ikasle etorkinak eta euskararen ikaskuntza eskolan". EHU/UPV: Eta kitto!

- Noguerol, A. (2008). "El tratamiento integrado de las lenguas en el marco europeo". *Textos Didáctica de la Lengua y de la Literatura 47. El tratamiento integrado de las lenguas*, 10-19.
- Peal, E. eta Lambert, W. E. (1962). *The relation of bilingualism to intelligence*. Psychological Monographs: General and Applied, 76(27), 1-23.
- Ruiz Bikandi, U. eta Tusón, A. (2008). "El tratamiento integrado de las lenguas". *Textos Didáctica de la Lengua y de la Literatura 47, El tratamiento integrado de las lenguas*, 7-9.
- Serra, J. M. (2002). *Immigrazioa, hezkuntza eta hizkuntza aniztasuna*. Hik Hasi, Etorkinak gure eskolan 9. Monografikoa, 18-23.
- Siguán, M. y Mackey, W. F. (1986). *Educación y bilingüismo*, Madril: Santillana, Unesco.
- Weinreich, U. (1974). *Lenguas en contacto*. Caracas: Universidad Central de Venezuela.

## 8. ERANSKINAK

### 1. **ERANSKINA:** eskolei pasatutako galdetegia.

#### EAE-ko eskolen hizkuntzaren trataera

Kaixo! Julen Saetre Peña naiz. Gasteizen Lehen Hezkuntzako gradua ikasten ari naiz. Sasoi honetan, Gradu Amaierako Lana idazten ari naiz. Nire ikerketa lana, EAE-n D ereduko umeei beren eskolatzean eta beren formakuntzan zehar ematen zaien hizkuntzaren trataerari buruzkoa da. Ikerketa hau aurrera eramateko asmoz, galdetegi txiki bat erantzutea eskatu nahi dizuet. Galdetegi honetan jasotako datuak ikerketa burutzen lagunduko didate. Horrenbestez, jasotako datu pertsonalak soilik ikerketarako erabiliko dira, modu anonimoz betiere. Mila esker zuen arreta eta laguntzarengatik.

#### Ikastetxea zein probintzian kokatuta dago?

- Gipuzkoa
- Bizkaia
- Araba

#### Ikastetxearen izaera zein da?

- Publikoa
- Pribatua
- Kontzertatua

#### Ikasleen ama hizkuntzari dagokionez, zuen ikastetxean zer da ugariagoa?

- Ama hizkuntza euskara duten ikasleen presentzia
- Ama hizkuntza gaztelania duten ikasleen presentzia
- Arestian aipatutako bi taldeen antzeko presentzia
- Ama hizkuntza bezala beste hizkuntza bat duten ikasleen presentzia
- Beste batzuk: .....



Ikastetxea kokatuta dagoen ingurunea (herria, hiria, auzoa) euskalduna edo erdalduna da?

Euskalduna

Erdalduna

Antzekoa

Beste batzuk: .....

1. Haurrak Haur Hezkuntzan hastean, ama hizkuntzaren arabera geletan banatzeko irizpiderik erabiltzen al duzue? Zein? Baiezko kasuan, zer adinera arte egiten da banaketa hau? Ezezko kasuan, haurren hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza zein modutan egiten da?

.....

2. Urteak aurrera joan ahala, metodo honen emaitzak nabarmendu daitezke?

.....

3. Zer onura dituela uste duzue?

.....

4. Alde txarrak al ditu?

.....

5. Ama hizkuntza gaztelania dutenek Lehen Hezkuntza amaitzean, euskara ondo menperatzen bukatzen al dute? Arrazoitu.

.....

6. Eta alderantziz, ama hizkuntza euskara dutenek Lehen Hezkuntza amaitzean, gaztelania ondo menperatzen bukatzen al dute? Arrazoitu.

---

7. Hala izanez gero, eskolan egindako lanaren fruitu dela uste duzue? Edo gizartearen eraginez ikasi dutela uste duzue? Zergatik?

---

8. Ikasleek bi hizkuntzetan, ahoz, entzumenez, idatziz eta irakurriz maila bera lortzen al dute?

---

9. Jatorri atzerritarreko ikasleek hemengo bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) ikasteko tratamendu bereziren bat jasotzen al dute? Baiezko kasuan, laburbildu.

---

10. Atzerritarrak herrialde ezberdinetakoak izan daitezkeela kontuan harturik, hizkuntzen irakaskuntzan tratamendu berdina egiten zaio, adibidez, Kolonbiatik etorri den eta gaztelania dakien ikasle bati edo Errumaniatik etorritako eta gaztelania ez dakien ikasle bati?

---

11. Ignasi Vilak atzerritarren hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzan parte hartu beharko luketeen lau faktore aurkezten ditu. 1-5-era puntuatuz, esan zein puntura arte eskolan kontuan hartzen diren (1 oso gutxi eta 5 sakontasunez). a) Irakasleek haurrak duen ama hizkuntzaren maila zein den ondo ezagutzea.

	1	2	3	4	5	
Oso gutxi	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Sakontasunez

b) Umeek zer eskolatzeko maila daukaten, irakurtzen edo idazten badakiten.

	1	2	3	4	5	
Oso gutxi	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Sakontasunez

d) Zer nolako jarrera duten hizkuntzekiko.

	1	2	3	4	5	
Oso gutxi	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Sakontasunez

e) Familiaren hezkuntza maila zein den eta zer itzaropen dituzten eskolarekiko.

	1	2	3	4	5	
Oso gutxi	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Sakontasunez

**2. ERANSKINA:** Gipuzkoaren testuinguruaren laburpena.

	<b>Izaera</b>	<b>Ingurunea</b>	<b>Ama hizkuntza</b>
1. Ikastetxea	Kontzertatua	Euskalduna	Euskara
2. Ikastetxea	Kontzertatua	Antzekoa	Beste bat
3. Ikastetxea	Kontzertatua	Antzekoa	Gaztelania
4. Ikastetxea	Kontzertatua	Antzekoa	Euskara
5. Ikastetxea	Kontzertatua	Euskalduna	Euskara
6. Ikastetxea	Kontzertatua	Gaztelaniaduna	Gaztelania
7. Ikastetxea	Publikoa	Antzekoa	Antzekoa

**3. ERANSKINA:** Bizkaiaren testuinguruaren laburpena.

	<b>Izaera</b>	<b>Ingurunea</b>	<b>Ama hizkuntza</b>
1. Ikastetxea	Kontzertatua	Gaztelaniaduna	Gaztelania
2. Ikastetxea	Kontzertatua	Euskalduna	Euskara
3. Ikastetxea	Kontzertatua	Euskalduna	Gaztelania
4. Ikastetxea	Publikoa	Antzekoa	Antzekoa

**4. ERANSKINA:** Arabaren testuinguruaren laburpena.

	<b>Izaera</b>	<b>Ingurunea</b>	<b>Ama hizkuntza</b>
1. Ikastetxea	Kontzertatua	Gaztelaniaduna	Gaztelania
2. Ikastetxea	Publikoa	Gaztelaniaduna	Gaztelania
3. Ikastetxea	Publikoa	Gaztelaniaduna	Gaztelania
4. Ikastetxea	Kontzertatua	Gaztelaniaduna	Antzekoa

**5. ERANSKINA:** Gipuzkoako 1. galderaren emaitzak.

1. Ikastetxea	Ez
2. Ikastetxea	Ez

3.lkastetxea	Ez (baina kontuan hartu)
4.lkastetxea	Ez (baina kontuan hartu)
5.lkastetxea	Ez
6.lkastetxea	Ez
7.lkastetxea	Ez

**6. ERANSKINA:** Bizkaiko 1. galderaren emaitzak.

1.lkastetxea	Ez
2.lkastetxea	Ez
3.lkastetxea	Bai
4.lkastetxea	Bai

**7. ERANSKINA:** Arabako 1. galderaren emaitzak.

1.lkastetxea	Ez
2.lkastetxea	Bai
3.lkastetxea	Ez
4.lkastetxea	Ez

**8. ERANSKINA:** Gipuzkoako 2. galderaren emaitzak.

1.lkastetxea	Bai
2.lkastetxea	Bai
3.lkastetxea	Ez
4.lkastetxea	Bai
5.lkastetxea	Bai
6.lkastetxea	Bai
7.lkastetxea	Bai

**9. ERANSKINA:** Bizkaiko 2. galderaren emaitzak.

1. Ikastetxea	Bai
2. Ikastetxea	Bai
3. Ikastetxea	Bai
4. Ikastetxea	Bai

**10. ERANSKINA:** Arabako 2. galderaren emaitzak.

1. Ikastetxea	Ez
2. Ikastetxea	Bai
3. Ikastetxea	Bai
4. Ikastetxea	Ez dakit

**11. ERANSKINA:** Gipuzkoako 5. galderaren emaitzak.

1. Ikastetxea	Bai
2. Ikastetxea	Ez
3. Ikastetxea	Bai
4. Ikastetxea	Bai
5. Ikastetxea	Ezin da orokortu
6. Ikastetxea	Bai
7. Ikastetxea	Bai

**12. ERANSKINA:** Bizkaiko 5. galderaren emaitzak.

1. Ikastetxea	Bai
2. Ikastetxea	Bai
3. Ikastetxea	Bai
4. Ikastetxea	Bai

**13. ERANSKINA:** Arabako 5. galderaren emaitzak.

1.lkastetxea	Bai
2.lkastetxea	Ez
3.lkastetxea	Kasuaren arabera
4.lkastetxea	Bai

**14. ERANSKINA:** Gipuzkoako 6. galderaren emaitzak.

1.lkastetxea	Bai
2.lkastetxea	Ez
3.lkastetxea	Bai
4.lkastetxea	Bai
5.lkastetxea	Ikaslearen arabera
6.lkastetxea	Bai
7.lkastetxea	Bai

**15. ERANSKINA:** Bizkaiko 6. galderaren emaitzak.

1.lkastetxea	Bai
2.lkastetxea	Bai
3.lkastetxea	Bai
4.lkastetxea	Bai

**16. ERANSKINA:** Arabako 6. galderaren emaitzak.

1.lkastetxea	Bai
2.lkastetxea	Bai
3.lkastetxea	Bai
4.lkastetxea	Bai

**17. ERANSKINA:** Gipuzkoako 8. galderaren emaitzak.

1.lkastetxea	Ez
2.lkastetxea	Ia ia bai
3.lkastetxea	Ez
4.lkastetxea	Bai
5.lkastetxea	Ez
6.lkastetxea	Bai
7.lkastetxea	Bai

**18. ERANSKINA:** Bizkaiko 8. galderaren emaitzak.

1.lkastetxea	Ez
2.lkastetxea	Ez
3.lkastetxea	Ez
4.lkastetxea	Bai

**19. ERANSKINA:** Arabako 8. galderaren emaitzak.

1.lkastetxea	Ez
2.lkastetxea	Ez
3.lkastetxea	Bai
4.lkastetxea	Ez

**20. ERANSKINA:** Gipuzkoako 9. galderaren emaitzak.

1.lkastetxea	Bai
2.lkastetxea	Bai
3.lkastetxea	Ez
4.lkastetxea	Ez



5.lkastetxea	Bai
6.lkastetxea	Bai
7.lkastetxea	Bai

**21. ERANSKINA:** Bizkaiko 9. galderaren emaitzak.

1.lkastetxea	Bai
2.lkastetxea	Bai
3.lkastetxea	Bai
4.lkastetxea	Bai

**22. ERANSKINA:** Arabako 9. galderaren emaitzak.

1.lkastetxea	Kasuaren arabera
2.lkastetxea	Bai
3.lkastetxea	Bai
4.lkastetxea	Ez

**23. ERANSKINA:** Gipuzkoako 10. galderaren emaitzak.

1.lkastetxea	Bai
2.lkastetxea	Ez
3.lkastetxea	Atzerritarrik ez
4.lkastetxea	Ez
5.lkastetxea	Bai
6.lkastetxea	Bai
7.lkastetxea	Bai

**24. ERANSKINA:** Bizkaiko 10. galderaren emaitzak.

1. Ikastetxea	Ez
2. Ikastetxea	Ez
3. Ikastetxea	Bai
4. Ikastetxea	Bai

**25. ERANSKINA:** Arabako 10. galderaren emaitzak.

1. Ikastetxea	Ideiarik ez
2. Ikastetxea	Premiaren arabera
3. Ikastetxea	Ez
4. Ikastetxea	Bai